

ANALISIA: Islandia, «Lapikoen
Iraultzatik» hamar urte (I)

ALBERTO MATXAIN > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Presoak

PELLO OTXANDIANO > 11

2019ko urtarrilaren 19a | XIII. urtea • 604. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GASTEIZ EUSKARAREN TRENERA IGO ZENEKOA

ARABAKO IKASTOLETAKO LEHENENGO IRAKASLE IZASKUN ARRUEREN LORRATZA ARAKATUZ, 1933TIK 1975ERA
BITARTEKO GASTEIZKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA OSATU DU MIEL A. ELUSTONDOK. > 12

IA | «IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK»



Analisia: Islandiako Lapikoen
Iraultzatik hamar urte (I) 04

Trumpetik Bolsonaroraino, sare
sozialek bultzatutako olatua harro-
harro dator 07

Euskara Gasteizen: «Izaskun
Arrueren urratsen atzetik» 12

Sarean 18

Elkarrizketa: Mar Mendibe,
neurologoa 22

Aurrerabidea ate joka eta indioak
kexu 26

In fraganti: Xabier Garate 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:**

Kontsumitzaileen datuak
biltzeko lehia bizia

10 **Oier Gorosabel:** Enpatia
ipurdiko zuloan

11 **Pello Otxandiano:** Presoak

17 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gorka Etxeberria Dueñas:**

Kontu kontari

21 **Joana Garmendia:** Saiatzen dira

25 **Nekane Zinkunegi**

Barandiaran: Prokrastinatu

25 **Joxean Agirre:** Urtarrila

30 **Ana Elozegi Serna:** Haurren
etxeak



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Kontsumitzaileen datuak biltzeko lehia bizia

Kontsumoko elektronikari eskainitako Consumer Electronics Show azoka egin berri da Las Vegasen. Azoka zinez garrantzitsua bada ere, aurten bisitariek ez dute nobedade handirik aurkitu bertan. Jendeak 5G teknologiaren inguruko berrikuntza ikusgarriak espero bazituen ere, adituek ez dute nabarmentzeko moduko ezer ikusi. Bai, ordea, telebistaren esparruan, non Hego Koreako konpainiek, Samsung eta LG erraldoiek batez ere, microLED teknologian oinarritutako pantaila berriak erakutsi dituzten. Samsungen kasuan, bereizmen handiko pantaila izan da izarra. LGk, aldiz, LED organikoekin egindako pantaila bilgarria aurkeztu du.

Horrez gain, bi aldaketa aipagarri izan dira azokan. Alde batetik, sentsoreekin hornitutako produktu asko izan dira, etxetresnetatik zapata eta azpiko arroparaino. Zentzu horretan, datu bilketari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ekoizpenaren ia edozein esparrutan. Horren erakusgarri izan da Las Vegaseko bigarren berrikuntza. Telebistak ekoizten dituzten lau enpresa handienek –Hego Koreako Samsung eta LG, Japoniako Sony eta AEBetako Vizio–, lehen aldiz beren produktuetan Apple etxearen zerbitzuak eskainiko dituztela ikusi da, iTunes eta Siri laguntzaile birtuala kasu. Apple etxeko zerbitzuez gain, kontsumitzaileak aukera izango du Amazon eta Google konpainienak ere erabiltzeko. Aldaketa horrekin Apple multinazionalak neurri handi batean orain arteko bere politika aldatu du: gailuen bateragarritasunaren aurkako bere jarrera baztertu duela ematen du.

Erabaki horren atzean bi arrazoi egon daitezke. Alde batetik, Apple konturatu da ez duela gailu guztietan lehiatzerik eta erabaki du hobe duela indartsu den eremuetan bere gailuak hobetzen jarraitzea, gainontzeko esparruetan espezializatutako enpresekin akordioak bilatzen dituen bitartean. Bestetik, ikusi du adimen artifi-

zialerako hain beharrezkoak diren datuak biltzeko bere gailuetatik harantzago joan behar duela. Azken finean, jendeak gailuak nola erabiltzen dituen eta zerbitzuak nola kontsumitzen dituen ezagutzeak gero eta garrantzi handiagoa du. Datu horiekin ekoizpenaren norabidea finkatzen dute enpresek. Era berean, datuok eskaintzen dituzten zerbitzuak egokitzeko ere badira baliagarriak.

Pentsa dezakegu datuak eta horien lanketa enpresek ekoizten dituzten produktuak hobetzeko direla baliagarriak. Zenbait kasutan eta neurri batean horrela da. Oro har, baina, hesi eta eragozpen berriak sortzeko balio du lanketa horrek. Hau da, beraien eremuko lehiakideen sarrera murriztea lortzen dute horrela enpresek. Esate baterako, Rolls Royce etxeak hegazkinentzako motorrak ekoizten jarraitzen du, baina, orain, saldu beharrean, alokatu egiten ditu, mantenua eta ordezeko piezak eskai-

Gero eta garrantzi handiagoa du jendeak gailuak nola erabiltzen dituen eta zerbitzuak nola kontsumitzen dituen ezagutzeak. Datu horiekin ekoizpenaren norabidea finkatzen dute enpresek

niz. Motorrok sentsorez josita daude eta izugarritzko datu bilketa egiten dute. Horrela, zer baldintzetan lan egin duten, zerk kaltetzen dituen gehien... jakiten dute. Informazio horrek, noski, motorrak hobetzeko balio du, baina baita lehiakideak baztertu eta Rolls Royce etxearen nagusitasuna finkatzeko ere.

4.0 Industriari edo Gauzen Interneti (IoT) buruz aurrerapen onak balira bezala hitz egiten da, baina, berrikuntza guztiak bezala, berez ez dira ez onak ez txarrak. Tes-tuinguruan dago gakoak: jabeak nortzuk diren, zertarako erabiltzen dituzten, nork kontrolatzen dituen... Kate ikusiezin batean harrapatuta gelditu baino lehen, bada garaia galdera politiko horiek egiten hasteko. •

Reykjavik, 2009ko urtarrilaren 20a. Krisi ekonomikoak itota zegoen herriak kaleak hartu zituen. Polizia Islandiako Parlamentua inguratzen zuen jendearen kontra oldartu zen. Hurrengo egunetan mobilizazio masibokak mantendu zituzten herritarrek eta krisian ardura zuzena eduki zuen Gobernu eskuindarrak dimititzea lortu zuten. Hauteskundeak ezkerak irabazi zituen lehen aldiz eta hurrengo urteetan konstituzio

txikia da. 350.000 biztanle inguru ditu, Iruñerriak bezainbeste. Irla bat izateak, klimak, orografiak eta demografiak ezaugarri oso bereziak ematen dizkio islandiar herriari. Bertako biztanleek mendeetan zehar irlaren bizi baldintza gogorrei aurre eginez biziraun dute. Bost mendez Danimarkaren parte izan ostean, 1944an, Bigarren Mundu Gerraren tesuinguruan, erreferendum bidez Danimarkarekiko lotura askatzea erabaki zuten herritarrek eta Islandiako Errepublika sortu zen.

Europako herririk pobreentarikoa zena, Marshall planari eta industrializazioari esker pobreziatik atera eta mundu mailako herrialde aurreratuen artean kokatu zen.

Krisi ekonomikoa

Islandia gogor kolpatuko zuen krisiaren baldintzak 1995tik 2007ra bitartean egosi ziren. Hamabi urte horietan bi alderidiren arteko aliantzak (Independentziaren Alderdia, eskuinekoa, hegemonikoa, eta Alderdi Aurrerakoaia, zentro-

eskuinekoa) gobernatu zuen Islandia, merkatuaren desregulazioa, banketxeen jabetza publikoaren amaiera eta hainbat enpresa publikoren salmenta helburu. 2003 eta 2008 artean ekonomiak hazkunde oso azkarra ezagutu zuen eta banketxeak, ordurako pribatizatuta zeudenak, azkar eta kontrol publikorik gabe hazi ziren, Islandiako barne produktu gordina hamar aldiz gaitzitzen zuten aktiboak edukitzera iritsi arte. Herritarren kontsumo ahalmena ikaragarri altua izatera iritsi zen.

{ analisia } **Alberto Matxain**

Iraultzatik hamar urte (I)

erreforma sakon bat erredaktatzeko munduan aurrekaririk gabeko prozesu parte hartzailea martxan jarri zen Islandian. Krisia eragin zuten bankuak ez ziren erreskatatuak izan, banketxeetako arduradunak espetxeratu egin zituzten eta islandiar herriak erreferendumean kanpo zor erraldoia ordaintzeari uko egin zion.

Bihar “Lapikoen Iraultza” deiturikoan mugarri izan zen mobilizazio egunaren hamargarren urteurrena beteko da. Prozesua ez da oso ezaguna, baina M-15a bezalako mugimenduentzat lehen mailako erreferentzia izan zen. Baina... iritsi zaigun irudia erreala da? Zer eman zuen islandiar herriaren erreboltak? Zertan gelditu da?

Ezer baino lehen, oinarritzko informazio pixka bat: Islandia hizkuntza propioa duen herri

2008ko urriaren 6an Islandiako lehen ministroa zen Geir Haardek telebista bidezko diskurtso historikoa zuzendu zion nazioari. Bertan larrialdi egoera komunikatu zien ordura arte gainera zetorkiena susmatu ere egiten ez zuten herritarrei

2008ko irailaren 15ean Lehman Brothers banku estatubatuarra porrot egin zuen: mundu mailako krisi ekonomiko larriaren abiapuntua izan zen. Krisiak Islandiako finantza sistema gogor kolpatu zuen: hiru banketxe nagusiek ordaindu ezin zituzten zorak zituzten. Finantza sistemaren tamaina handiegia zenez herrialdeko ekonomiarekin alderatuta, Islandiako Banku Zentralak ezin zituen erreskatatu.

2008ko urriaren 6an lehen ministroa zen Geir Haardek telebista bidezko diskurtso historikoa zuzendu zion nazioari. Bertan larrialdi egoera komunikatu zien ordura arte gainera zetorkiena susmatu ere egiten ez zuten herritarrei.

Islandiako banketxe garrantzitsuenek porrot egin zuten, herrialdeko barne produktu gordina baino hamar aldiz

handiagoa zen zorra utziz. Astebeteko epean, hiru banketxeak interbenitu egin zituzten. Koroa islandiarra %60-70 erori zen dibisa garrantzitsuenekin alderatuta, eta Islandia Nazioarteko Diru Funtzari erreskate bat eskatzen zion Europako lehenengo herrialdea bilakatu zen. Erreskatearekin, herritarren zorren interesen balioa 2,5 aldiz biderkatu zuen. Egun gutxi epean, islandiarrak kontsumo maila oso altu bat izatetik zorrak ezin ordaintzera pasa ziren. Banketxeek porrot egitea eta herriaren kolapso ekonomikoa ekiditeko, lege bereziak onartu zituzten, tartean kapitalen irteerei muga zorrotzak jartzea.

Islandian bizi den Eric Lluent Bartzelonako kazetariak “El Faro de Reykjavík” komunikabide digitalean azal-

dutakoaren arabera, Islandiak ez zituen bertako banku pribatuak erreskatatu ez zelako gai, esan bezala, zuloa irlaren barne produktu gordina baino hamar aldiz handiagoa zelako. «Banka nazionalizatu zuten, banketxe zaharren errautsetatik banketxe berriak sortu zituzten». Hiru bankuak erortzen uztean, Banku Zentralarekin zituzten zorrak zulo bilakatu ziren. Gobernuak Banku Zentrala diru publikoz ahal bezainbeste erreskatatu zuen. «Banku sistemaren oinarria salbatzek 2.000 miloi euro baina gehixeagoko kostua izan zuen. Horrela, faktura biztanleko 6.250 eurora igo zen».

Protestak

Urriaren 11n Hörður Torfason artista eta abeslari ezaguna

bakarrik hasi zen protestatzen, Parlamentu aurreko Austurvöllur plazan jendeari mikrofono irekia eskainiz nahi zuena adierazteko. Astebururako zenbait lagun ar- tean manifestazioa antolatu zuten, eta mobilizazioek gorputza hartu ahala Raddir Fólksins (“herri ahotsak”) mugimendua sortu zuten. Astero mobilizazioak egiten aritu ziren. 2009ko urtarrila- ren 20an ehunka lagunek Parlamentuaren inguruan manifestazioa egin zuten, la- piko eta sukaldeko tresnekin zarata ateraz lehen ministro- aren eta Parlamentuaren ar- teko lehen bilkura oztopatze- ko helburuarekin. Protestak hasi zirenetik lehen aldiz Po- lizia manifestarien kontra ol- dartu zen, hogeit hamar pertsona atxilotuz eta beste hainbeste piper gasaz zaurituz.

Hörður Torfason,
protesten hamargarren
asteen Parlamentuaren
aurrean egindako
mobilizazio isilean.
Oddur BENEDIKTSSON

Hurrengo bi egunetan protesta gehiago egon ziren. Milaka lagunek Gobernuaren egoitzak inguratu zituzten. Manifestariek lehen minis- troaren autoari elur bola eta arrautzekin eraso egin zio- ten. Urtarrilaren 22an isti- luak egon ziren manifesta- rien eta polizien artean. Poliziak gas negar-eragilea erabili zuen. Islandiako poli- zia 60 urte zeramatzan ma- nifestarien kontra gas negar- eragilea erabili gabe, 1948ko NATOn sartzearen kontrako mobilizazioetatik. Reykja- vikeko polizia buruak adierazi zuen protestek jarraituko zu- tela pentsatzen zutela. «Egoe- ra berria da. Dena ari da alda- tzen Islandian». “Lapikoen Iraultza” gertatzen ari zen.


Torfasonek GAUR8ri egun horietan bizitakoa azaldu dio. «Eszitazioak eta zalantza



egoerak ezaugarritutako ga- rai ezohikoa izan zen. Parla- mentua inguratu genuen eta egun gutxira gobernuak di- misioa eman zuen. Manifes- tarien eskaera guztiak onar- tuak izan ziren». “Iceland Weather Report” komunika- bide digitalari 2009ko mar- txoan eskainitako elkarrizke- tan dena nola hasi zen azaldu zuen: «Ez nuen ezer berezia pentsatuta. Lehen mobiliza- zioan Austurvöllur plazan mikrofono ireki batekin jarri nintzen eta jendea hitz egite- ra gonbidatu nuen. Jendeari hitz egin nion, jendea entzun nuen, haserre nengoen. Hu- rrengo larunbatean lehen mobilizazio antolatua egin genuen. Niretzat garrantzi- tsua zen manifestazioek aha- lik eta iritzi eta ikuspuntu gehien islatzea. Ahalegin etengabea egin behar izan ge-



Protesta zaratatsua, Islandiako Parlamentuaren aurrean. Eskuinean, Polizia Parlamentua babesten. Oddur BENEDIKTSSON



nuen mugimendua infiltratu nahi zuten taldeak urrun mantentzeko. Hirugarren larunbatean gure eskariek forma hartu zuten: ikuspegi hobea hartzen hasi ginen». Haien aldarrikapenak: Gobernuaren dimisioa, hauteskundeak lehenbailehen egitea eta Banku Zentralaren Batzordea nahiz Ikuskatze Finantzariorako Autoritatearen Batzordea kaleratzea.

«Suziriak gogoratzen ditut, irribarreak, itxaropena, energia. Lapikoen soinua, oso era sinple eta ahaltsua da jendea batzen duen erritmoa sortzeko. Esnatze bat izan zen», gogoratu du lehen manifestazioetan erreferente bilakatu eta gerora Konstituzio erreformaren zirriborroaren erredakzioan parte hartuko zuen Katrin Oddsdottir abokatuak.

Lluentek txanponaren beste aldea nabarmendu du: «Desengainu handi bat izan zen. Ni ez nengoen egun hartan [lehen ministroak adierazpena egin zuen egunean], bi hilabete geroago iritsi nintzen. Orduan jendeak azaltzen duena da hiriak isiltasun absolutuan zeudela. Dolu moduko bat zen, eraso bat gertatu izan balitz bezala, arma ikusezinek garatutako gerra bat, kasu honetan finantzarioa, herria goitik behera suntsitu izan balu bezala. Bromak egitera iritsi zirenean nork erosiko zuen Islandia, porrot egin duen enpresa bat balitz bezala».

Ondorioak

Urtarrilaren 22ko istiluen biharamunean Geir Haarde

lehen ministroak hauteskundeak apirilaren 25era aurreratu eta politika utziko zuela iragarri zuen. Horrek ez zituen islandiarrak ase eta mobilizazioei eutsi zieten, milaka pertsona bilduz bere berehalako dimisioa eskatzeko. Urtarrilaren 26an, protestak gogortu eta astebetera, lehen ministroak dimisioa aurkeztu zuen. Aliantza Sozialdemokratak zentro-ezkerreko koalizioa gobernua osatu zuen Ezkerra Berdeak alderdiarekin.

Hauteskunde aurreratuak 2009ko apirilaren 25ean izan ziren. Gutxiengoan zegoen gobernu koalizioak gehiengo osoa lortu zuen, eta boterean 18 urte zera-matzan Independentziaren Alderdiak botoen herena galdu zituen, 1944tik lehen aldiz lehen indarra izateari

utzi ziolarik. Gobernu berriko indarrek, Alderdi Sozialdemokratak eta Ezkerra Berdeak alderdiak, herriaren birfundazioa eta Konstituzioaren erreforma zeramatzaten euren programetan. Horixe zen kalera atera zen jendeak, botoa eta gobernua eman zienak, eskatzen zena: birfundazioa.

2010ean eta 2011n bi erreferendum egon ziren bankuen zorraren inguruan erabakitzeko. Bietan zorra ez ordaintzearen aukerak irabazi zuen. Britainia Handiko eta Herbehereetako gobernuak Islandia EFTaren Justizia Auzitegian salatu zuten. Honek 2013ko urtarrian Islandiaren aldeko ebazpena onartu zuen.

Geir Haarde lehen ministroa zena epaitua izan zen, eta kargu txikiengatik erru-

duntzat jo zuen epaitegiak, kargu larrienengatik errugabetuz. Banketxeetako arduradunak ere epaituak izan dira. Haietatik 36k espetxe zigorak jaso dituzte, denora 96 urte, haietako askok espetxea zapaldu dutelarik.

Islandiako herri lasaiaren altxamenduak Europan guztiz ezohikoak diren gertaerak ekarri zituen: Gobernuaren erorketa, indar harremanaren aldaketa nabarmena, banketxeetako arduradunen espetxeratzea eta zorraren inguruko erreferendumak. Era berean, hauteskunde osteko hilabeteetan, konstituzio erreformaren erredakzioan herriak Gobernu berriari aurrea hartuko zion, mundu mailan erabat berritzailea eta eredugarria den prozedura martxan jarritz.

ALGORITMOARI ESKER

Trumpetik Bolsonaroraino, sare sozialek bultzatutako olatua harro-harro dator

ATZERRIA / Mikel Zubimendi Berastegi

Brasilgo presidente berri bezala, Jair Bolsonaro kapitain ultraeskuindarrak egunero hamar txio zabaltzen ditu sare sozialetan. Komunikaziorako bere bitarteko nagusiak bihurtu ditu, itzulingururik gabeko hizkera zuzen eta erasokorrek, bere lagun miretsia den Donald Trumpen estilo bertuan. Ez da txiripa presidente bezala egin zuen lehen txioa Trump goraipatzeko gorde izana: «Elkarrekin, Jainkoaren babespean, oparotasuna eta aurrerabidea ekarriko ditugure herrientzat».

Twitter bidez iragartzen ditu bere erabaki eta neurriak Bolsonarok, bere posizioak indartzen ditu, beste gobernuburu batzuekin komunika-

Beheko irudian, komunikatzeko kanal tradizionalak alboratu eta sare sozialak lehenetsi dituen Bolsonaroren jarraitzaile bat, kanpainan. GAUR8

tzen da, oposizioari aizkorakadak sartzen dizkio eta prentsa tradizionalen argitaratzen diren hainbat berri gezurtatzen ditu. Sare sozia-

letan indartu zuen bere kanpaina, bertan eman zituen jakitera bere gobernu politiko-militarreko ministroen izenak. Den-dena beti eraso joaz, bere hitzetan «politiko ki zuzena» den horretatik aldentuz. Milioika jarraitzaile ditu Twitter, Facebook, Instagram edo YouTube. Bere txio bakoitza milaka aldiz birtxiokutzen dute bere jarraitzaileek. Eta, horrela, komunikabide tradizionalen bitartekaritzarik gabe, bozgorailu zinez indartsua eskuratu du.

KONTROLA ZIURTATU

Trumpen eskolako ikasle txin-txoa da Bolsonaro. Trumpen gai kutunenak Bolsonaroren menuan zerbitzatuta daude. Esaterako, *fake news* edo «berri faltsuak». Duela aste bat honakoa txiokatu zuen: «Prentsa-ren sektore batzuek ez dute mugarik, eguneko 24 orduak gezurrak asmatzen ematen dituzte». Gero, Trumpek urrian bota zuen txio sonatua birtxiokatu zuen: «Berri faltsuen komunikabideak herriaren benetako etsaiak dira».

Bistan da Bolsonaroren erabakia, Trumpek utzi duen arrastoan hartutakoa: komunikatzeko bitarteko edo kanal tradizionalak alboratu eta komunikazio zuzen baten alde egin. Twitterrek kontrola ematen baitio. Berak igortzen ditu mezuak, ez dago prentsaurrekorik, ezta kazetari-ekin elkarrizketarik ere. Hitz egin nahi duenean hitz egiten du soilik.

Bizitzan hartzen diren erabaki guztiekin bezala, ondorioak eta demontreak erabakiokin eskuz esku datoz. Sarean egotea nahi baduzu, jokabide koherente bat izan behar duzu: zertaz hitz egin, noiz hitz egin erabakitze-ko



Bolsonaroren garaipena informazioaren eta politikaren gaineko gure ideia zaharrak deformatzen dituen garai dislokatuon fruitua da, Interneteko kulturaren garapen ilunarena

Ez dago Internetek egin ahal digunaren eta egingo digunaren inguruan harritzeko denborarik. Hobe dugu kalte horren ondorioak pairatzen jarraituko dugula barneratzea

politika bat. Bolsonaro, baina, akzio-erreakzio moduan jokatzeko du, norbaitek zerbait esan, norbaitek zerbait argitaratu, eta, punba!, txioa botatzeko du.

AZTARNAK NONAHI

Gehiago ala gutxiago atsegin, baina, Bolsonaro garaipena ez zen sorpresa bat izan. Bizi ditugun garai dislokatu hauen enegarren adierazpidea izan zen, gure bizitzaren egiturak diktatzen dituzten indar berri arraroen beste produktu bat baino ez. Informazioaren, politikaren, kulturaren inguruko gure ideia zaharrak deformatzen ari diren denbora historiko azkartu honen fruitua, Interneteko kulturaren garapen ilunarena.

Ez dago Internetek egin ahal digunaren eta egingo digunaren inguruan harritzeko denborarik. Kaltea eginda dago eta hobe dugu barneratzea datozen urteetan kalte horren ondorioak pairatzen jarraituko dugula.

Zenbakiak dena esaten dute. Hilabeteetan 2.000 milioi pertsona dira Facebook sare sozialeko erabiltzaile aktiboak, beste horrenbeste Youtube atarikoak eta 1.500 milioi Whatsapp aplikaziokoak. Komunikabide digitalez mintzo bagara, berriz, Google eta Facebook erraldoiek publizitate di-

gitalaren merkatuaren %60 kontrolatzen dute.

Sakelako telefonoak erabiltzeko bidea Silicon Valleyko korporazio erraldoiek kontrolatzen dute ia osotasunean. Bolsonaro eta Trumpek aukeren leihoa irekita topatu zuten gehiegikeriak gertakizun ohiko bilakatzea normalizatu duen ingurugiro digital berrian. Korporazio handiek, gainera, beren erantzukizunei erantzuteko gaitasun ez nabarmena erakutsi dute.

Aukera berriok gizartearen aurrerabidearen motor izango ziren promesa egin zuten, baina atzerabidean gaude. Gure bizitzak, gizartea, politika, hein handi batean, haien esku daude. Eta haien atzaparretatik ihes egitea ez da erraza.

Mundua begiratzeko leihok ireki eta atzera begirako ikusmira batekin, ez da zaila honaino nola iritsi garen antzematea. Teknika forentseak erabiltzeke, nonahi aurkitu daitezke aztarnak, noranahikoak dira pistak. 2013. urtean Errusiako sare sozialetan iragarki hau zabaldutako: «Interneteko operadoreak behar dira! Bulego dotore batzuetan lan egiteko aukera, 25.960 errubloko soldatarekin. Egitekoak: Interneten iruzkinak jartzea, post tematikoak idaztea, blogak sortzea, sare sozialetan aritzea, pantaila-irudien



Trumpen Twitter erabiltzeko moduak inspiratu du Bolsonaro. Brasilgo presidentearen kanpainaren diseinuan Trumpen estrategiek zeresan handia izan zuten.
GAURB

bidez informazioa zabaltzea». Hautatuak San Petesburgon kokatu zituzten eta aurrerantzean Interneteko Ikerketa Agentziarentzat, hots, Errusiaren aldeko troll armada-erentzat, hasi ziren lanean.

ALGORITMOEN LAGUNTZA

2014. urtean aise irabazi zituen hauteskunde orokorrak Narendra Modi hindu nazionalistak. Indian Facebook erabakigarria izan zen lehen hau-

teskundeak izan ziren; bada, Barack Obamaren ondoren plataforman gehien maitatutako politikaria bihurtu zen Modi. 2015. urtean, Facebookeko 87 milioi erabiltzailearen datuak eskuratu eta aztertu zituen Cambridge Analytica konpainiak, eta, ondoren, jorkaera pertsonalizatueta oinarritutako kanpainak egiteko erabili ziren.

2016. urteko maiatzetan, Rodrigo Duterte Filipinetako pre-

Hauteskundeak irabazteko gako izan diren memeak eta gezurrez betetako artikulua zabaldu ditu algoritmoak. Baina azken emaitza «lapurtzeko» gaitasuna ere izango balu?

Sute ikaragarri bat bezala zabaldu da fenomenoak. Epidemiologo guztiek badakite kutsakorra den gaixotasun bat kontrolatzeko lehen urratsa nola zabaltzen den jakitea dela

sidente hautatu zuten. Facebooken eman zuen kolpea ezin ukatuzkoa izan zen. Hauteskundeak baino bi hilabete lehenago, konpainiak berak “Facebookeko elkarriketarako kontrariorik gabeko errega” izendatu zuen. Eskuin muturreko pertsona ospetsuek bera aupatzeko propaganda sarea osatu zuten Interneten.

Hilabete geroago, Britainia Handiko boto-emileen %52ak Brexitaren alde egin zuten. “Leave.EU” izeneko taldeak Cambridge Analyticaren metodo berdinak erabili zituen kanpaina eta Errusiako Interneten Ikerketarako Agentziarekin konektatutako bot eta trollek, botoa eman aurreko bi egunetan, Brexitaren inguruko 45.000 txio zabaldu zituzten Internet bidez.

Ez dira kasu bakanak. Zerrrenda amaigabea izan liteke. Ez du axola zein herrialdetan zauden. Zoazen toki guztietan kontu berdina baita.

Eskuin muturreko presidentek guztion aldeko trollekin armadek algoritmoen laguntza izan zuten, edukiak iradoki eta erabiltzeak edukiok ikusten ematen zuten denbora handitzen zuten kodeena. Facebook, Twitter eta Youtube erabiltzen hasi ziren beren mezuak pasatu eta anplifikatzeko, aztoratze eta beldurtze kanpainak antolatzeke. Ba-


tzuetan, lekuan lekuko eskuin muturreko taldeak baino askoz talde sofistikuagoak sortuz, besteetan, talde zaharragoak gaztetuz.

FENOMENOA ULERTU

Behin komunitatea eratuta, sarean behar duten guztia aurkituko dute eskuin muturreko taldeok. Beren gezurrak, muturreko propaganda biral bihurtuko dute. Konspirazioa normal bihurtuko dute. Beren “berriak” komunikabide askok ontzat eman eta publiko zaharrago bati helarazteko prestatuko dituzte.

Algoritmo batek memeak zerbitzatuko dizkie herritarrei, ebidentzietan oinarritu gabeko artikulua, oniritzi eta arautze editorialik gabeko Youtubeko bideoak. Hauteskundeak irabazteko gako direla bistan da, baina, horrez gain, hauteskundeak azken emaitza “lapurtzeko” gaitasuna ere izango balute?

Egin kontu: Brasilen hauteskundeak baino hilabete lehenago egin zen ikerketa baten arabera, boto-emile gehienek beren senide eta lagunak Whatsapp bidez bidalitako mezuak gehiago sinisten dituzte telebistan edo egunkarietan ikusitako berriak baino. Princetoneko eta New Yorkeko unibertsitateek egindako beste ikerketa batek erakutsi due-



naren arabera, AEBetan 65 urte baino gorakoek “albiste faltsu” gehienak elkarbanatzen dituzte, izan duten hezkuntza edo duten sexu, arraza edo soldata gorabehera.

Sare sozialen erabilera eta berarekin batera munduko politikan okerrera ematen ari den aldaketa ez da betirako izango. Baina eragindako kaltea agian bai. Desegonkortuta-

Sare sozialen irismena eta hauteskunde emaitzetan duten pisua oraindik erabat aztertu gabeko fenomeno da.
GAUR8

ko hauteskundeak, erradikalizatutako herritarrak, inspiratutako biolentzia ez dira bat-batean desagertuko, ez horixe.

Sute ikaragarri bat bezala zabaldu da fenomenoak. Baina epidemiologo guztiek dakiten bezala, kutsakorra den gaixotasun bat kontrolatzeko lehen urratsa nola zabaltzen den jakitea da. Bada, beraz, nondik hasi lanean.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Enpatia ipurdiko zuloan

Laster beteko da urtebete Ekai Lersundi Martinez LGTBI+ aktibista gazteak bere buruaz beste egin zuela, haur transexualen egoera modu latzean gizarteratuz.

2001eko urriaren 13an jaioa, Lersundi neska bezala bizi izan zen hamabost urtez, harik eta gurasoei mutila zela esateko adorea bildu zuen arte. Familiaren, lagunaren eta irakasleen babesa izan zuen eta, bere borrokaren transzendentzia jabetuz, aktibista bihurtu zen: ikastetxean formakuntza saioak bultzatu zituen eta, bere izaera lotsatia gaingiduz, hainbat komunikabidetan agertzeko baietza eman zuen. Horraino, dena ezin hobeto. Zer arraio gertatu zen, orduan?

Hori ulertzeko trans gazteen testuingurua ezagutu behar dugu. Kasu bakoitza desberdina da: batzuek tratamendu hormonal baina ez dute behar; beste batzuek ez (duten gorputzarekin ondo baitaude); beste kasu batzuetan kirurgia ere erabili beharra dago. Halere, Administrazioak orain arte denak zaku berean ezarri ditu; adibidez, nortasun agiriko izena aldatzeko tramiteak errazagoak dira, baina sexuaren aipamena aldatzeko hormona-tratamenduan gutxienez bi urtez egon izana eskatzen da. Horretara, trantsizioa ukatzen zaie edo bestela (osagile ulerkorra aurkituz gero) tranpak egitera bideratzen dituzte, adibidez, hormona tratamenduarekiko alergia faltsuak diagnostikatuz. Beste adibide bat: EAEn, trans gazteak gaixotzat hartzen dira (oraindik!), eta endokrino kontsultara ailegatzeko psikologia eta psikiatria kontsulta asko igaro behar dituzte. Administrazioan eta Osasun Sistemaren aurkitutako trabotan dago Ekaiaren erabakiaren muina; zehatzago esanda, sexualitate eta genero aniz-



Ekaiaren heriotzaren ondoren Ondarroan egindako elkarretaratzea. Aritz LOIOLA | FOKU

tasunarekiko duten ikuspegi zaharkituan.

Trans gazteekin hitz egitea baino ez da behar, jasan behar izaten dutenaz jabetzeko. «Ez zara sekula benetako emakumea izango». «Mutila zarela? Bada, hori neska sinadurra da». Edo Ekaik berak entzun behar izan zuena, ailegatzen ez zen tratamendu hormonalaren zain zegoela, hilerokoa jaitsi eta bularrak hazten hasi zitzaizkionean. Hondartzara joan ezin zelako kexu zen, eta osagileak zer esango eta honakoa: «Ez zaitez horretan zentratu, bila itzazu bestelako alternatibak!». Bada, horixe egin zuen Ekaik: beste alternatiba bat bilatu. Non dute enpatia profesionalok?

Osakidetzako panorama etsigarri horren aurrean, Lersundik bazuen aukera Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatea uzteko, Nafarroako edo Kataluniako osasun publikora jotzeko. EAEn baino traba gutxiago jartzen baitituzte endokrinologia zerbitzura ailegatzeko (Bartzelonako "Trànsit" unitatea eta Rosa Almirall espezialista erreferenteak dira). Halere, Ekai Bizkaian geratu zen, tratamendu hor-

monala etxean egitea aldarrikatzen zuelako.

Bertako araudi zaharkituek tratamendu hormonal 16 urtetik aurrera baimentzen dute, baina arazo burokratikoek epeak luza ditzakete. Hori gertatu zitzaion Lersundiri: psikologo-psikiatra-psikologo bisitak, «hila-bete barru etorri» behin eta berriz... Baina nerabezaroko gorputz aldaketan sasoian hilabete bat asko da. Ekaik erabaki ausarta hartu zuen, baina, senide eta lagunaren babesa izan arren, burokrazia bihozgabeak bere jasateko ahalmena gaingiditu zuen. 2018ko otsailaren 15ean, amak etxean hilik aurkitu zuen.

Ekai Lersundiren historia, biografia laburra, hortxe amaitzen da. Baina senideei, lagunei, Ondarroako herriari esker bere kasua aldarri bihurtu da, LGTBI+ kolektiboaren barruan zein kanpoan: besteak beste, espainiar Estatu mailako Trans Lege bakarra eskatuz (lurraldez lurralde aldatzen diren araudien orde), eta pertsona bakoitzaren kasura egokitutako jokabidea. •

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Presoak

U rte hasierako presoen aldeko manifestazioak kaleak bete ditu beste behin ere. Aurtengoak urrats kualitatibo batzuk ekarri ditu. Manifestarien kopuruaz haratago –ezin ukatuzkoa da arrakasta termino kuantitatiboetan–, Hegoaldeko sindikatu guztiek egin dute bat lehen aldiz deialdiarekin, baita Iparraldeko auzapezen %65ak ere. Deialdi honen arrakastak bi gauza adierazten ditu nabarmen: bat, euskal presoen kaleratzearen aldektasuna hegemonikoa da euskal gizartean –EAJren absentsiak interes partidistei erantzuten die–. Bi, euskal presoek kaleratzearen aldeko aldarria agenda sozialean dago; urteak joan urteak etorri, presoek aldeko gizarte mobilizazioak sendo jarraitzen du, eta horrek esan nahi du barneratuta daukagula gizarte gisa presoak kartzelan egonda ez dagoela elkarbizitza demokratikorik, eta beraz, presoena ez dela ezker abertzalearen arazo bat, baizik arazo nazional bat.

Erronka urtarrilaren 12ko energia sozial hori eraginkor bihurtzea da. Eta horretarako gauza asko behar dira, bide berriak saiatu behar dira nahi eta nahi ez gatazkaren ondorioen konponbidea deitu dena ETAren ondorengo garaietan kokatzeko. Baina lan moldeak pentsatzen hasi aurretik, nago gogoeta bat pausatatu behar dugula, bi sentipen edo ikuspegi sumatzen baitira elkar nahastuta. Batetik, bada joera bat presoek auzia iraganarekin lotzekoa, termino politikoetan amortizatuta dagoen auzi bati aterabidea aurkitu beharraren zama balitz bezala, prozesu politikoari ekarpen kualitatiborik egin ezin diezaiokeena. Uste dut ikuspegi horrek, askotan pertzepzio subjektibo bat denak, kontzienteki baino gehiago inkontzienteki adierazten denak, mugatu egiten gaituela. Hitzak jarrita: «Presoen afera konponbidean jarri behar da fase politiko honetan gure indarrak askatu ditzagun». Zalantzarik gabe, presoek kaleratzeak, sufrimenduarekin bukatzeaz gain, bultzada emango lioke prozesu politikoari, eta esan gabe doa helburua presoak lehenbailehen kaleratzea dela. Baina kartzeletako giltzak estatuek daukate. Orain, har dezagun beste ikuspegi

bat: «Elkarbizitza demokratikoaren aldeko gizarte mobilizazioa –presoen afera lehen lerroan jarrita– euskal proiektua gorpuzteko lehen mailako kapital politikoa da». Izan ere, hala da. Zoritxarrez, esparru gutxitan gertatzen dira iragan larunbatekoa bezalako baterajotzeak. Momentu historiko honetan hain beharrezkoak zaizkigun herri akordioak nonbait badaude aurreratuta, hori presoek auzian da. Eta beraz, presoek auziak edukiz eta gizarte betetzen du estatuen autoritarismoaren aurkako herri frontea, beste defentsa-lerro batzuekin artikulatzeko aukerak irekiz. Ikuspegi horretan, presoak aktibo politikoak dira fase politiko berrian. Eta, hain zuzen ere, ikuspegi hori operatibizatzea da presoak alait arinen kalera bidean jartzeko egin dezakegun inbertsiorik onena.

Aldebakartasuna jorratzea, finean. Kide batek ezin hobeto azaldu zuen metafora bidez: «Aldebakartasuna bizikletan ibiltzea bezala da, pedalei emateari utziz gero erori egiten zara». Aldebakartasuna ikuspegi autozentratua da, ematen dugun pausu bakoitzak euskal gizarte ahalduentzeko helburua du, herri gisa du-

Zalantzarik gabe, presoek kaleratzeak, sufrimenduarekin bukatzeaz gain, bultzada emango lioke prozesu politikoari

gun kapital soziala gehitzekoa beste ezer baino lehen, badakigulako ez dela estaturik egongo konponbide demokratiko baterako, eta, ondorioz, konponbideek gainezkatze demokratikoak eskatuko dituztela. Kasu, aldebakartasunak ez du autismo politikoa esan nahi, hau da, ez du estatuekiko dialektika ukatzen eta ezin gaitu fase bakarreko prozesuak irudikatzerara eraman. Baina blokeoak, ikusten ari garen inboluzio autoritario dramatikoak, ezin gaitzake paralizatu, ez presoek auzian eta ez beste edozeinetan ere.

Gaur, Puerto de Santamariako kartzelan egingo diot bisita lagunari. Iragan larunbatean bizitakoaren puska bat kristalaren beste aldera helarazten asmatzen badut, ziur naiz itxaropen argi bat piztuko dela bere begien hondoan. •

EUSKARA JENDEA GASTEIZEN

«Izaskun Arrueren urratsen atzetik», Miel A. Elustondok berreraikitako bide ezezaguna

Izaskun Arrue 2016ko azaroaren 10ean zendu zen, 89 urte zituela. Merezitako omenaldia egin zioten orduan eta aurretik haren berri ez zekien jende askok jakin zuen Arabako ikastoletako lehenengo andereñoa zela. Miel A. Elustondo kazetari eta idazle azpeitiarrak, berriz, ondo zekien ordurako nor zen andre hura, 2000. urtetik behin baino gehiagotan hitz egin baitzuen harekin, “Argia”-n harekiko solasak argitaratzeko, Olabide Ikastolaren 50. urteurrena zela-eta haren historia idazteko edo, besterik gabe, ka-lean biak suertatuta. Edonola ere, lehendik ere bazuen haren

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Arabako ikastoletako lehenengo andereño Izaskun Arrue abiapuntua da, berak zioenez, Gasteizko lehenengo ikastola abiatzeko meritua «guraso haiena» baita; euskaraz jakin gabe ere beren seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten haiena, alegia. Guraso haiek eta bide bera urratu zuten beste askoren omenez idatzi du Miel A. Elustondok bere liburua.

berri. Lehenengo andereñoaren heriotzatik bi urtetsu joanda, “Izaskun Arrueren urratsen atzetik” liburua aurkeztu du. Lehenik esan beharra dago lan hori ez dela andereño ai-

tzindari horren biografia, gerraurretik 1975era bitartean Gasteizko «euskara jendeak» egindako bidea idorotzeko ahalegin edo ikerketa baizik. Bigarrenik, aipatu berri dugu-

Gasteizko Zerkabarren kaleko ikastolako lehen argazkia. «IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK»

na esan beharra zegoen arren, Arruek ondo merezia duela bere izena liburuaren portadan agertzea, nahiz eta berak besterik esango zuen, nonbait.

IZASKUN ETA BESTE BIDE GILEAK

Hala uste du Elustondok, behinik behin: «Izaskun Arrue hil zenean, hura omentzeko asmoa zabaldu zen bazterretan. Niri, orduan, Izaskunek berak 2004an elkarrizketa egin nion batean esan zidana etorri zitzaidan gogora. Arabako lehenengo andereñoa zela esanez joan nintzaion ni, merezimendu hori zuela, alegia, eta berak, aldiz, beren umeak ikastolara bidean jarri zituzten gurasoak goratu zizkidan. Haiena zela merezimendua. Izaskunek zioen bera ez zela Gasteiza ezkondu ikastola bat irekitzeko asmoa hartuta, Gasteizen bazirela guraso batzuk, euskaraz ez zekitenak, baina beren umeak euskaraz jakin zezaten nahi zutenak. Elkarrizketa berean, zera ere galdetu nion, alegia, bera baino lehen izan ote zen Gasteizen euskarazko irakaskuntzan jardun zuen inor. Izaskunek, orduan, Pilar Landaburu aipatu zuen, Xabier Landaburu gerra aurrean Madrilan diputatu izan zena- ren arreba. Zioen entzuna zuela Pilar Landaburu zer edo zer jardun zela euskaraz erakusten. Elkarrizketa harrezkero, buruan jira-bueltaka ibili nituen bi hariok: batetik, euskaraz ez zekiten guraso haiek, baina beren umeak euskaraz jakitea nahi zutenak; bestetik, berriz, Pilar Landaburu».

Horrenbestez, zer dela-eta ez zuen Pilar Landaburu abiapuntu hartu? Lanaren egilearen beraren hitzetan, «Izaskun Arrueren heriotzak jarri ninduelako eskribitzen, piztu zuelako nire barrua eta Izaskun besterik ga-



be omentzea gauza motza iruditzen zitzaidalako, alegia, gerra aurrean euskaraz irakasten jardundako Pilar Landaburu eta 1963an beren umeak lehen ikastolara bidali zituzten gurasoak ere omenaldiaren parte zirela uste nuelako. Hori, hala eta ere, ez zen nire irudipen hutsa, Izaskunek berak esandakoa baizik».

Ez dirudi abiapuntu makala, Izaskun Arruek emandako izen eta gertakariei jarraituz gerraurretik 1975era bitarteko Gasteizko «euskararen historia sozialaren zirriborroa» idatzi baitu Elustondok, bikain idatzi ere. Bere ikerketa hasteko, Arrue zeruan den zalantza zipitzik egin gabe, Elustondok harakoa egin, Done Petriren baimena jaso eta *post mortem* elkarriketatu zuen andereñoa, atsegin eta umoretsu. Pilar Landaburu «ikastola antzeko zera bat» antolatu zuena, «guraso haiek», Ramon Narbaiza, Eusebio Osa eraman zituen hizpidera Arruek, horiek «eta beste».

BIDEA JOSTEN

Aurrera eta atzera ibili da ikerlaria izen haien haien jabeek urratu zuten bidea josi arte. Baina batzuk oraindik bizirik daude, hala nola Andoni Perez Cuadrado eta Peli Romarategi, gerraurreko Zapatari kaleko Euskal Eskolako ikasleak. «Ikastola» esaten zioten eskola hartan, hain zuzen, Pilar Landaburu zegoen andereño. Eskolaz kanpoko ekintzak ere egiten zituzten, Gaztetxoak izeneko elkarte jeltzaleak antolatuta.

Perez Cuadrado eta Romarategi bezala, «guraso haiek» ere 40ko hamarraldiaren hasieratik aurrera Andoni Urrestarazu *Umandiren* ikasleak izan ziren. Haietako bat, Jose Antonio Arriola, Elustondorentzat ur


gardeneko iturri. Hark eman zion Ikastun Eskolaren berri. Eskola hartako ikasle batzuek ere Umandirekin ikasten omen zuten euskara. Laster zabalduko zuen Elizbarrutiak neskentzako Ikastun Eskola, eta han ziren Ramon Narbaiza, Ikastun Eskolan Pedro Anituaren laguntzaile, eta Umandiren arreba Terese Urrestarazu irakaslea ere.

Izenak eta lekuak behin eta berriz uztartzen zirela ikusi zuen Elustondok, berak lehenago bildutako informazioan bezala: «Duela lau urte, Izaskunen gidaritzapean sortutako ikastolak 50 urte bete zituen, Olabide Ikastolak, alegia, eta ikastolaren historia eskribitzeko enkargua jaso nuen. Zenbait dokumentu, kontaktu eta izen jarri zizkidaten eskueran. Tarteetan, Peli Martin zenak makinaz jotako 42 orrialde! Peli Martin jakile izan zen, kontaktuen garaiaren lekuko, eta Izaskun Arrueren ikastolaren sorrera eta ondoko hamar

Ikastolaren bigarren egoitza, Estibalitz hiribidean, 1967an. Behean, euskarazko lehen gogo-jardunak Gasteizen.
«IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK»

urteak zehaztasun handiak emanez kontatu zituen 42 orrialde haiek berealdiko kronika ziren! Horrekin batera, Izaskunen etxeko eskolara joan ziren lehen ikasleetako batzuk ezagutu nituen, beren gurasoen historia kontatu zidaten. Haatik, ez nuen ordu-

ko gurasorik ezagutzeko modurik izan, batzuk hilak, beste-
tzuk hitz egiteko umorerik ez... Dena dela, Olabide Ikastolaren historia egin nuen, eta liburua argitaratu ondoren, beste elkarriketa bat egin nuen, giltzarria, Jose Antonio Arriolarekin, laurogei urtetik gorakoa eta umeak Izaskunen etxera bidali zituzten lehen gurasoetakoa. Arriolak bai, Arriolak ebatzi zidan ekua-
zioa! 1945ean Ikastunen Eskolan ari zen Arriola. Eskola hura 1941-42an ireki zuen Pedro Anitua abadeak. Ramon Narbaiza apaiza ere hantxe zuten 14 urteko gazteek. Narbaizak, besteak beste, erlijioa irakasten zien, baina oso era berezian: iritzi trukea ziren haren eskolak, honetaz eta hartaz hitz egiten zuten. Gainera, mendi irteerak egiten zituzten igandeetan... Garai bertsuan, neskentzako Ikastun eskola ireki zuen elizbarrutiak Nieves Cano kalean. Hantxe zen Ra-





mon Narbaiza ere, eta Umandiren arreba Terese! Eta neska-mutil haiek bat egin zuten, mendi irteera haietan kasu».

Euskararen eta abertzaletasunaren bilakaera bateratsu zihoazen neurri batean. «Dударик gabe, Narbaizak abertzaletu zituen Ikastun Eskolako gazte haiek: Jose Antonio Arriola bera, Obdulio Lopez de Lacalle, Anjel Aranzabal, Peli Martin... Aldi berean, euskaraz ikastera bultzatu zituen, Umandik San Antonio kaleko etxean ematen zituen eskoletara, alegia. Lotura egina zegoen! Ramon Narbaiza, Ikastunen Eskola, Andoni Urrestarazu! Izen berak ageri ziren batean eta bestean», gogoratu du Elustondok.

1946an, Gasteizen Frantzisko de Vitoriari egin zioten omenaldira agintari ugari joan ziren egunean, zapalkuntza salatzeke eta presoan askatasunaren aldeko ekintza egin zuten zenbait lagunek: panfletoak bota, ikurrinak jarri... Peli Romarategi eta beste zenbait lagun atxilotu eta torturatu egin zituzten. 1951ean,

berriz, espainiar Estatuan greba orokorra izan zen, eta atoan errepresioa. Umandik atzerrira ihes egin behar izan zuen, eta haren ikasleek beren arteko prestatuena hautatu eta euskarazko eskolak ematen segitu zuten.

BI HAMARKADA, «GEROAREN HAZI»
40ko eta 50eko hamarraldiak «geroaren hazi» izan ziren Elustondoren ustez: «40ko hamarkadako Andoni Urrestarazu Umandiren eskolek jarraipena izan zuten 50eko hamarkadan, nahiz Andoni erbestean zen ordurako. Haren ikasleek –Jose Antonio Arriola,

«Izaskunek zioen bera ez zela Gasteiza ezkondu ikastola bat irekitzeko, Gasteizen bazirela guraso batzuk, euskaraz ez zekitenak, baina beren umeak euskaraz jakin zezaten nahi zutenak»

Euskararen eta abertzaletasunaren bilakaera bateratsu zihoazen neurri batean. «Dударик gabe, Narbaizak abertzaletu zituen [40ko hamarraldiko] Ikastun Eskolako gazte haiek»

Ezkerrean, Izaskun Arrue. Eskuinean, Miel A. Elustondo bere liburua esku artean, Pilar Landaburu bere alaba Maiterekin ageri den orrialdea erakusten.
Dani BLANCO | «IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK» - Endika PORTILLO | FOKU



Pakita Abaitua, Peli Martin, Peli Lopez Presa...– ez zioten ikasteari utzi. ‘Itsuen herrian begibakarra alkate’ egin zuten; beren artean jantzienak izendatu zituzten irakasle. 1957an, bestalde, Ramiro Maeztu Institutuan euskarazko eskolak ematen hasi ziren hezkuntzako lege erreforma bat baliatuz. Garai berean, mezak euskaraz esaten hasi ziren, eta gogo-jardunak ere egin zituzten, euskaraz. Giro horretan egosi zen 1963an lehen ikastola, Donostian Elbira Zipitriak hasitako bidea eredu. Hain zuzen, udazken hartan Zipitriarekin hila-betea egin zuen Izaskunek Donostian, gurasoen eskariz, Zipitriaren irakasteko moduan trebatu nahirik». Jose Antonio Arriolak kontatu zion, nork hobeto, nola bururatu zitzairen ikastola abiatzea: «Zer izango zen, bada! Ikastunen Eskolaren garaian 1945ean ikasle ginenok,

ezkonduak ginela 1960an, haur txikien gurasoak! Gure umeek euskaraz jakitea nahi genuen!». Bere lanean, Elustondok nabarmen utzi nahi duela dirudi ez zela ondoko herrialdeetako jendeak ekarritako asmoa, bertakoen bultzada eta lana baizik, Izaskun Arruerekin bat etorritakoa: «Gasteizen bertan ditu erroak mugimenduak. Inor ez zen ondoko herrialde batetik erritmoa markatzera etorri. Izaskun Arrue bera nafarra zen, baina Gasteiza ezkondua, bertan ari zen bizimodua egiten». Edonola ere, egiari zor, «bigarren aldi batean ikastolaren hasierak denboran bat egin zuen Gipuzkoatik eta Bizkaitik Arabara eta Gasteiza etorritako migratzaileekin. Euskaldunak ziren, neurri handian, eta Francoren eskola nazionala ez, baina bestelako irakaskuntza, euskarazkoa, ikastola, nahi zuten beren umeentzat. Zalantzarik gabe, hortik

etorri zen ikastolako ikasle kopurua urte gutxian emendatzea, ikaragarri handitzea».


Izan ere, 1960ean hasitako hamarkadan zehar, Debagoieneko eta Eibarko zenbait enpresa Gasteizen ezarri ziren. Bitartean, 1962an, gobernadoreak agindu zuen euskarazko eskolak Mugimenduaren egoitzan emateko, eta Ramiro Maeztu Institutuko eskolak desagertu egin ziren, egoitza hartara joateko deialdia egin zutenean inork ez baitzuen izena eman. Beste zenbait lekutan irakatsiko zuten, ordea, hala nola Jesus Obrero Ikastetxean, eta, ondoren, Arte eta Lanbide Eskolan.

ARABAKO LEHENENGO IKASTOLA

1963ko abenduaren 4an, Izaskun Arruek ikastolako, alegia, Zerkabarren kaleko bere etxeko atea zabaldu zien zenbait ume-ri, tartean bere seme nagusi Rafa Pikatoste zela. 1967. urterako askoz ume gehiago ziren, gehiegi etxe hartan ikasteko, eta etxe bat hartu zuten gurasoek errentan, Estibalitz hiribidean. Urte hartan Olentzero ateratu zuten ikastolako gurasoak, andereñoak eta umeek, Gasteizen lehen aldiz.

Euskararen aldeko mugimendua indarra hartzen zihoan, eta urte berean Eusebio Osa, garai hartan agustindarra, eta apaizgai talde bat Gasteiza heldu ziren, apaiztegi Teologia ikastera. Berehala hasi ziren euskara eskolak ematen; Osa ikastolan laguntzen hasi zen, eta, ikastolako gurasoak, Estibalitzko monasterioan egiten hasi ziren bileretara joaten. 1968an, bilera horietako batean parte hartu zuten bi gazte atxilotu eta batzarrak bertan behera geratu ziren.

1970ean Juan Bautista Gamiz irakasle taldea sortu zen,



zenbait urte geroago Gasteizko AEK izango zenaren hazia.

Hurrengo urtean, Araotzen (Oñati) euskarazko uda ikastaro trinkoa antolatu zuten Osaren gidaritzapean, eta zenbait atxiloteta izan ziren, Araotzen eta Osaren eta apaizgaien Gasteizko etxean, ETAkoak ziren aku-

Goian, Hezkuntza Ikuskaritzaren jakinarazpena, ikastola legeztatu gabe zegoela ohartaraziz. Behean, gerraurreko ikastolak antolatutako Gabonetako ikuskizuna. «IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK»

saziopean; benetako delitua, ordea, euskarazko eskolak ematea zen. Udazkenean, ikastolatik kanporatu zuten Osa. Ordurako, berak eta apaizgai gazteek gau-eskolak ematen zituzten.

Urte berean "Ikastola" hitza jarri zuten Estibalitz hiribideko ikastolaren fatxadetan, baina berehala kendu behar izan zuten, agintariekin hala «eskatuta». Bi urte geroago, Olabide Ikastola oraingo egoitzara aldatu zen, Gasteizko Lasarte herrixkara.

Azkenik, 1975ean, Izaskun Arruek Olabide ikastola utzi zuen, ikastola batzar liskartsu batean euskara batuaren alde agertu ondoren, bera ez baitzegoen erabaki horrekin ados.

Gerra, gerraondoa, EAJ, zapalkuntza, klandestinitatea, ETA, langile grebak, errepresio

gehiago... hori izan zen Arabako euskararen bidea urratu zuen mugimendu haren tesuingurua. Historia horren protagonista asko kartzelaren, erbestearen eta torturaren biktima izan ziren, edo errepreliatuen ondorengo. Hala zen Pakita Abaitua, 1937ko udaberrian Azazetan fusilatu zituzten haietako baten alaba, hala Amaia Gonzalez de Gamarra, Pedro Inazio Elozegi Zerkabarren kaleko lehen umeetako baten ama eta bere irakasle titulua ikastolari utzi ziona, Maria Teresa Fernandez de Pinedo bezala, legeztatze arazoak gainditzeko gako. Ondorengo batzuk ere aipatzen ditu Josemari Velez de Mendizabalek Elustondoren liburuan: «Gasteiz erdaldun hartan jo eta su ari zirenak, denetariko eragoz-



pen eta oztopoak –eta kartzela eta torturak– jasan behar izan zituztenak: Eusebio Osa, Gonzal Fontaneda, Pako Eizagirre, Juanjo Uranga, Kepa Mendia, Aingeru Ibisate, Imma Murgoitio, Xabier Irigarai, Isidro Baztarrika, Sabin Salaberri, Carlos Caballero, Antxon Iriondo, Joxe Carrera... Eta barka nazatela aipatu ez ditudanek».

GARAIA GARAIO ISLA

Estibalizko monasterioko bilerek, Eusebio Osa Olabide ikastolatik kaleratzeak edo Izaskun Arruek ikastola uzteak Gasteizko euskararen aldeko mugimenduan ere garaian garaiko talkak eta liskarrak izan zirela agerian uzten dute. Bide hura berreraiki duenarengana jo dugu atzera berriro, eta zorrotz baina tentuz erantzun digu: «Talkak izan zirela begi bistakoa da. Eusebio Osaren kaleratzea dokumentatu ahal

izan dut, nahiz eta auzian sakondu nahiko nukeen. Estibalizko bilerek erreka jo zuten, zenbait atxilotze tarteko, eta, auziaren sumario bi ere eskura jarri zizkidan Gonzal Fontaneda adiskideak. Orduan ere, gazte suharrak alde batetik, heldu apalduagoak beste batetik; aurrerakoiak, batetik, atzerakoiak, bestetik. Aztergai interesgarria zait Estibalizko nagusi egiten zuen Isidro Baztarrikaren nortasuna, bilera haietan parte hartu baitzuen. Gero, gainera, Olabide Ikastolan euskara batuaren inguruko batzar handi batean parte hartu zuen, Izaskun Arruek esan zidanez. ‘Hango garrasiak!’, esaten zidan. Izaskunek ikastola uzteko erabaki traumatikoa hartzea ere zehatz argitu nahiko nuke. Dena dela, bi mentalitate ziren, edo bi garairen arteko talka, jakile batek horixe esan berri dit, baietz, gazteak

«Gasteizen bertan ditu erroak mugimenduak. Inor ez zen etorri ondoko herrialde batetik erritmoa markatzera. Izaskun nafarra zen, baina Gasteiza ezkondua, bertan ari zen bizimodua egiten»

Estibalizko monasterioko bilerek, Eusebio Osa Olabide ikastolatik kaleratzeak edo Izaskun Arruek ikastola uzteak garaian garaiko talkak eta liskarrak izan zirela agerian uzten dute

Ezkerrean, Peli Romarategi, gerraurreko ikastolan eta gerraondoan Umandiren ikasle, iaz, GAUR8rekin solasean. Eskuinean, «Ikastola» idazkuna jarri berritan. Laster kendu behar izan zuten, Gobernu Zibilaren aginduz.
Juanan RUIZ | FOKU - «IZASKUN ARRUEREN URRATSEN ATZETIK»

eta helduak, ezkerrekoak eta eskuinekoak, abertzale estuak eta ‘espainolista eta komunista’ gisa etiketatuak... zirela han. Baina serio ezer eskribitzekotan, lekukotasun gehiago eta, ahal delarik, agiriak bildu behar ditut. Orduan, behar bada, galderari zuzen erantzuteko moduan egongo naiz. Orain susmoak baino ez ditut. Zenbait intuizio. Uste ustela baino gehiago behar dut».

Gerraurretik 1975era bitartean euskara jendeak Gasteizen egindako bidea josi du azpeitiarrak, ez da gutxi, baina ez du lana bukatu. «Litsak atera behar ditut», dio Elustondok. Besteak beste, dokumental bat egin

nahi du, irakurtzen ez duen jendeak honen guztiaren berri jakin dezan. «Ez dut eperik, asmo zindo sendoa soilik. Presazkoa da adin handiena dutenen lekukotasunak biltzea. Urregorritzko altxorra dugu eskueran, eta badakigu inor ez dela betiko. Liburua argitaratu orduko, gainera, informazio baliagarria dutela erakutsi didate zenbait lagunek, garaiko jakile zuzenak: Izaskun Arrueren lankide izandako Amalia Goikoetxea eta Aurori Unanue, andereñoaren lehen ikasleetakoa izandako Pedro Eloseggi, Juan Bautista Gamiz irakasle taldearen inguruko Jeni Prieto, Arabako Ikastolen Elkarteko buru eta Olabide Ikastolako ikasle ohi Joseba Aginagalde, Jose Carrera, Txema Capetillo... Garaia bizi izan zuten, entziklopedia biziak dira!».

Araba euskararen trenera igotzeko aukera erraztu zuten haien historia berreraikia.





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



> Kale borroka feminista



GAUR8

Mugimendu feminista kalean izan da berriz ere aste hone-tan, Estatu espainola astin-tzen ari den joera erreakzio-narioarekin kezkatuta eta haserre. Mezua garbia izan da: pauso bakar bat ere ez atzera.



Aste honetan alderdi popu-larreko Juanma Moreno izen-datutute Andaluziako presi-dente, PPk, Ciudadanosek eta Voxek josi duten hiruko akor-dioari esker eta eskuin mutu-rraren oldarraldi horrek sortu

du olatu feministaren eran-tzuna. Estatu espainolean ez ezik, Euskal Herrian ere izan dira elkarretaratzeak.

Sevillan, Andaluziako parla-mentuan presidente berriaren kargu hartzea gertatzen zen bitartean, Parlamentuaren atarian protesta feministak etengabeak izan ziren. Voxeko Francisco Serranoren arabera, «kale borroka feminista» zen atarian gertatzen ari zena. Par-lamentuaren barruan segi-tuan piztu ziren erreakzioak. PSOEko Susana Diazek eran-tzun zionez, «kale borroka da emakumeen kontrako indar-keria justifikatu nahia». Eta Podemoseko Teresa Rodrigue-zen erantzun zion Serranori «ahoa garbitu» behar zuela borroka feministaz hitz egin baino lehen, «borroka horri es-ker lortu baititugu gure seme-alabak zorionsuagoak egingo dituzten hainbat eskubide eta askatasun».

Parlamentuaren atarian zeu-denek buleriekin erantzun zio-ten Serranori, kantuan eta dantzari. Umorea, sorkuntza eta artea erantzun modura.



> Harrera herria

Gaur, larunbatez, Irungo he-rriak Euskal Herria harrera he-rria izan dadila galdegingo du manifestazioan. Iparrera bide-an diren ehunka lagunei elkar-tasuna helarazteaz gain, insti-tuzio ezberdinetako politikariei migratzaileei «harrera duin eta integral iraunkorra» ematea es-katuko diete mobilizazioan. Irungo Harrera Sareak antolatu



du mobilizazioa, herrian biltzen diren migratzaileen alde lan egiteko iazko uztailean dozena-ka irundarrek eta eragilek inda-rak batuta sortutako sareak. Orduetik, egunero Irundik igaro-tzen diren pertsonen ahal duten moduan laguntzen diete; gauak kale gorrian igarotzea ekidinez, arropa beroa eskainiz eta harre-ra gozoa eginez.



> Sebastian

Donostiako Antzoki Zaharrean aurkeztu dute aste honetan “La marcha de (San) Sebastian” film laburra. Galipot zinemaren ekoizpena da, Manuel Aguilarrrek zuzendu du eta berea da gidoia ere. Argazki zuzendaria Ivan V. Jimenez da eta Asier Burgaletak egin du muntaketa.

Egileek azaldu dutenez, «Sebastian eta Claire bikotea Donostian egun batzuk igarotzen ari diren turistak dira. Alde Za-



harretik paseoan, Sarriegiren estatua ukitu eta mundu musikal batean murgilduko dira, hiriko jai handiaren benetako protagonistak bilakatuz, danborradako protagonistak».

Aurkeztu oso jendetsua izan zen eta sarean ere ikusmin handia sortu du film laburrak. Interesa duenarentzat: «La marcha de (San) Sebastian from Galipot Zinema on Vimeo».

> EHZ jaialdia

EHZ jaialdia berrikuntzekin dator, baina, ohiturari eutsiz, ekaineko azken asteburuan izanen da aurten ere. Joan den asteburuan erabaki zuten, Baionako Zizpa gaztetxean egindako biltzar nagusian. Festibalaren kokalekua oraindik ere zehaztu ez duten arren, landa eremua alboratu eta herri batera eramango dutela iragarri zuten.

EHZ jaialdiaren geroa zalan-tzan bazegoen ere, antolaketa eta edukiaren proposamenari baieztoko zabala eman eta aurrera



jarraitzeko indarrak bildu ditu EHZ jaialdiaren prestaketa bere gain hartu duen lantalde berriak.

Ekaitzek eta arazo ekonomikoek kinka larrian jarri dute jaialdiaren etorkizuna. Bi urteko trantsizioaren ostean, baina, 1996an jaiotako festibala eraberritu egingo dute aurten. Gauza asko oraindik zehazteko dituzten arren, garbi nabarmendu dute jaialdiaren bi zutabe nagusiak kultura eta politika izango direla aurrerantzean ere.



> Putazalea

«Gizonik ez da jaiotzen putazale izateko». Mezu hori zabaltzen duen bideoa egin du Nafarroako Accion Contra la Trata gobernuz kanpoko erakundeak. Sei minutuko bideoan, gizon baten eta emakumezko baten ahotik jasotzen dira gure jendartean prostituzioa hain barneratua eta baimendua egoteko dauden arra-



zoiak eta ideiak. Bideoa ez da berri-berria, badaramatza aste batzuk sarean eta dagoeneko 141.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu.

Nafarroako Berdintasun Sailak ere babesten du kanpaina eta helburua emakumeen salerosketaren inguruan dagoen tolerantzia sozialaren inguruan hausnartzea da.



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Kontu kontari

Bazeuden Ane eta Mikel jolasten. Eta, ba... orduan, Mikelek nahi zuen pilota, ezta? Eta Anek ere... eta, ba... etorri da Maite eta hartu du makila magikoa. Eta... makilarekin egin dugu super-indarra eta pilota jaitsi da zerutik eta... Mikel zegoen negarrez, baze... Julene etorri da zaldian hegan...».

Haurrek modu xelebrea dute beraien arteko jolasak kontatzeko. Uztartu egiten dituzte guk ikusten duguna eta beraien fantasia alaia. Ez dakigu ondo non hasten den bata eta bestea, zein den bien arteko muga lausoa. Ziurrenez, horixe da hain zuzen ere politena. Jolasten jakitea. Are gehiago, zure burua galtzen uztea eta jolasean murgiltzea.

Epaile batek ez luke inor kondenatuko haur baten jolasak froga egiaztagarritzat jota. Gehienez ere, irribarre egingo luke eta pentsatu: “umekeriak”. Baina mundua hierarkiek gurutzatutako errealitate bezala dago eraikia. Segun eta nork zer esan, autoritate gehiago ala gutxiago ematen diogu aipubati, iritzi bati, kontakizun bati. Badaude pertsonak, gorputzak, jendartean duten posizio zehatzaren pisuaz, errealiterako joera omen dutenak. Eta ondorioz, beren kontakizuna egiazkoagoa omen da. Fantasiatzkoagoa besteena.

Begiak erdi irekita bakarrik, Urteberri egunean mugikorra hartu genuen askok. Ea jada bazkalordura berandu iristen ginen. Edo oraindik ohean zertxobait gehixeago euts genezakeen. Baina buruko mina kendu gabe irakurri genituen mezuak, zerbait gertatu zela Gas-teizko gaztetxean, goizean goiz.

Ez da aztia izan behar asmatzeko gaupasaz dauden gazteak gehi uni-

formedun-porradun gizonak batu-ketak zein emaitza izan dezakeen. Koordinazio falta agerian uzten duten mugimendu eta esaldi amaitu gabeak batetik. Bestetik, edukazioaren edukazioz amorragarria bihurtzen den polizia-gizonen hitz jario pausatu bezain tentsioduna. Bultzakadaren bat, kolperen bat, irainak alde batera eta bestera, karnetak eskatu...

Harridura hurrengo egunean bikoiztu zen. Udal polizien kontakizunaren arabera, jator-jator musika jais-teko eskatu zieten gaztetxean festan ari zirenei... ez zituzten ba inguratu eta bahitzen saiatu! Eskerrak, kasualitatez, beste hogeita hamar polizia inguruan zebiltzan, katu galdu baten bila edo. Eta beren lankideak salbatu zituzten, nahiz eta horretarako, beharrezkoa izan zenbait lagun atxilotzea.

Ordua da apurketa egiteko. Unea da komunikabide nagusiek zentzuzko irakurketak egin ditzaten. Eta ezin sinistukoa den prentsa-oha-

rra, horrelaxe transmititu dezaten. Gertakizunen kontakizun fantasioso eta xeble bezala. Hego Euskal Herriko polizia-gizonekin (niri gizonak tokatu zaizkit beti) eztabaida bat izan dugun guztiok dakigu, errealtetetik epaiketara, haurrik ameslarietak kontatuko balu bezalako ezberdintasuna egoten dela. Gogora datorkit, adibidez, Martxoaren 3aren 2012ko urteurrenean, lurrean eserita zeuden gazteen aurka polizia autonomikoak oldarraldia egin zueneko. Ospitalera joan ziren jarraian eta bertan artatuak izan ziren lagunei denuntzia jarri zieten. Zer dela eta? Poliziari eraso egin omen zieten!

Uniformedunek frankismotik herentzian jaso dute herritarrekiko mesfidantza eta guztiok, kontrarik frogatu ezean, susmagarri gara-la uste dute. Noizbait, gainerako herritarrok jende zintzo bezala har ditzagun nahi badute, kontu kontari aritzeari utzi beharko diote. •



Uniformedunek frankismotik herentzian jaso dute herritarrekiko mesfidantza.

{ koaderno } Joana Garmendia

Saiatzen dira

Irratian entzun dut aurrena: sexu-eraso saiakera izan omen da Barakaldon eguberri haue-
tan. Min egin dit belarrian. Egunkarietan, al-
dizkari eta telebistetan, albistearen berri nola
eman duten ikustera jo dut orduan. Eta, bai,
formula bera errepikatu dute denek (ia denek,
egia esan behar badut): eraso saiakera, «*intento de
agresión*», horixe Barakaldon gertatutakoa.

Saiakera. Hitz hori buruan iltzatuta, beste gai batzuei
buruz hitz egiteko nola erabiltzen duten begira hasi
naiz segidan. Alegia, sexu-erasoei buruz ez eta beste
zerbaiten saiakerez aritzeko nola erabiltzen duten. La-
purretak eta hilketak, berehala aurkitu ditut biak.

Joan den astean lapurreta saiakera izan omen zen
Soraluzeko zapata-denda batean. Goizeko hirurak alde-
ra, dendako atea ireki nahian ari omen ziren bi lagun.
Bizilagun bat ohartu omen zen, ordea; zarataka uxatu
zituen bi lagunak. Lapurreta egin nahi zuten, eta ez zu-
ten lortu; horregatik, bada, lapurreta saiakera.

Biharamunean, Bilbon, gizon bat atxilotu omen zu-
ten, hilketa saiakera egotzita. Gizonak tiro egin omen
zion beste gizon bati, behin baino gehiagotan tiro
egin. Hanka batean zauritu zuen bestea; ez zuen, ba-
da, hil. Norbaitek erabaki du, antza denez, ordea, atxi-
lotu duten gizonaren asmoa bestea hiltzea zela. Bes-
tea hil egin nahi zuen, eta ez zuen lortu; horregatik,
bada, hilketa saiakera.

Barakaldon zer gertatu ote den asmatu nahian hasi
naiz orduan. Norbaitek beste bati eraso egin nahi izan
dio, baina ez du lortu, antza denez. Erasotutakoa abia-
tu, baina bidean estropezu egin eta ez zuen besteare-
na heltzea lortuko, agian. Edo, eraso egiteko asmoz
aterako zen etxetik, baina igogailuan itxita geratuko
zen, kalera ezin iritsi. Akaso, biharamunean eraso egi-
teko plana ondo zehaztua zeukan, baina lotan zela

bihotzekoak eman dio eta ez da goizean esnatu. Nor-
baiti eraso egin nahi zion, eta ez du lortu; horregatik
behar du, baldinbaitere, eraso saiakera.

ERASOA ETA ERASOTUA, BENETAKOAK

Altura hauetan, ezinbestean datorkit gogora lagun ba-
tek behin kontatu zidana. Beti pentsatu izan zuela
gaztea zenean, gau batez, etxera bidean zela, eraso
egiten saiatu zitzaioa gizon bat. Nola edo hala lortu
zuen haren eskuetatik ihes egitea, garrasika, korrika.
Urteak pasa, eta jabetu omen zen ezetz, ez zela gizon
hura berari eraso egiten saiatu; eraso egin zion, kitto.
Eraso eginda zer lortu nahi zuen, zer ez zuen lortu,
hori beste kontu bat zela. Eta beste kontu horrek ez
ziola errurik arintzen gizon hari, eta ez ziola minik
arindu inoiz berari. Beste kontu horrek lortu zuen ba-
karra zera zela, beti izan zuela irudipena ez zutela be-
ne-benetan eraso; ez zuela bene-benetan arrazoirik
halako min, beldur edo amorrurik sentitzeko. Erasoa
saiakera huts bada, ez bada bene-benetakoa, erasotua
ere ez baita bene-benetakoa.

Ez dakit Barakaldon zer gertatuko zen. Ez omen du-
te xehetasunik eman. Ez ditut behar. Gizon hark zer
ez duen egin eta zergatik ez duen egin nahi zuen hura
egin, hori jakin beharrik ez daukat. Horiek beste kon-
tu bat dira, izan ez denaren xehetasunak, gertatu ez
denarenak; saiakera hutsean geratu denarenak. Gerta-
tu dena da inporta beharko ligukeena, kontatu behar-
ko liguketena: eraso izan dela Barakaldon, hori da
hemen bene-benetakoa dena.

Ez dut esan nahi albistearen berri eman duten kaze-
tariek ez dutenik Barakaldoko emakumea benetako
erasotutzat. Ez zuten hori esan nahiko, seguru nago.
Batzuetan ez da erraza hitzak ondo neurtzea; baina, ti-
ra, saiatzen dira. •

Erasoa saiakera huts bada, ez bada bene-benetakoa,
erasotua ere ez da bene-benetakoa. Gertatu dena da inporta
beharko ligukeena, kontatu beharko liguketena: eraso izan
dela Barakaldon, hori da hemen bene-benetakoa dena


Punta-puntako neurologoa da Mar Mendibe eta kasik 20 urte daramatza esklerosi anizkoitza behatzen, ikertzen eta tratatzen. Ikerkuntzak denbora propioak dituen arren, aldaketa izugarri baten lekuko izan den ziurtasuna dauka.

«Forbes» aldizkariak Estatu espainoleko ehun medikuenen zerrendan sartu zaitu. Nola hartu duzu albistea?

Oso pozik eta oso harrituta. Egia esan, ez naiz horrelako sariei oso adi egoten eta ez nuen espero. Espainiako Neurologia Elkartean lan asko egiten dut, batzordekidea naiz, eta 2018a oso urte gogorra izan da. Lan asko egin dut eta erabat horretan zentratuta egon naiz. Egia da oso urte emankorra ere izan dela. Eta egia esanda, Forbes zerrenda aberatsen zerrenda horretara lotzen nuen batez ere. Hortik aparte, arlo pribatuko profesionalekin lotzen nuen, ez nuen uste arlo publikoan ari garenak ere kontuan hartuko gintuenik. Kontsultan nengola jakin nuen, txio baten bidez. Sekulako ezusteko polita izan zen. Forbesen zerrendan sartutako 16 emakumezko medikuetako bat izatea oso pozgarria da niretzat.

Maila profesionalean, zerbait aldatuko al du?

Hasiera batean ez. Nik Gurutzetako Ospitalean lan egiten dut; neurologoa naiz eta nagusiki asistentzia kimikoan aritzen naiz. UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea naiz eta iker-tzailea ere banaiz. Nagusiki esklerosi anizkoitza eta eritasun neuroimmunologikoak



ikertzen aritzen naiz. Eta berdin segituko dut, irakasten, mediku lanetan eta ikerlari bezala sektore publikoan. Hori da nire asmoa.

Egia da, hala ere, horrelako zerrenda batean egoteak indarra ematen dizula lanean segitzeko. Zure lana aitortua izatea ona da eta mesede egiten dizu. Ni egunero-egunero pazienteekin egoten naiz kontsultan, eta, arratsaldeetan, entseguak egiten ditugu laborategian, batez ere esklerosi anizkoitzarekin. Sarri gure lana esker txarrekoa izaten da, emaitzak beti ez direlako positiboak izaten. Iraupen luzeko lasterketa bat da, emaitzak ez dira azkar eta erraz etortzen, eta horrelako aipamenek gure ildo estrategikoan segitzeko bultzada ematen digute zalantzarik gabe.

Ikerketa lanari ematen al zaio merezi duen tokia?

Tamalez, ez. Estatu espainolean oso finantziazio eskasa dauka ikerketak; AEBekin edo Alemaniarekin konparatuta, adibidez. Ikerketa profesionalizatu egin behar da, bertan ditugun profesionalak bertan geratzea lortu behar da eta beste herrialdeetako talentuak erakarri egin behar dira. Horretarako, baina, ikerketan inbertitu beharra dago.

Hemen talentu handiko profesionalak ditugu. Gurutzetan, adibidez, aliantzak egin ditugu aurrera egin ahal izateko. Gurutzetako Ospitalean pazienteak hartzen dugu eta behar duen arreta eskaintzen diogu –pazienteak beti erdigunean egon behar du-. Gero, pazientearen beraren inguruan oinarri sendoko egitura bat osatu dugu. Hartara, Achucarro Institutuarekin elkarlanean ari gara biomarka-

«1995etik gaur arte, esklerosi anizkoitza tratatzeko hamahiru farmako ditugu baimenduta jada, eta, datozen bost urteetan, gehiago izango ditugu»

tzaileekin lan egin eta gaixotasunaren pronostikoa aurreratu ahal izateko. Bestetik, ospitalean bertan daukagu BioCruces Institutua, ikerkuntzan eta berrikuntzan zentratua eta dagoeneko fruituak ematen ari dena. Eta, azkenik, hirugarren sektorea deitzen dugunarekin ere lan egiten dugu; pazienteen elkarrekin. Pazientea erdigunean jarri eta elkarlaneko egitura hori osatu dugu.

Jendartean, oro har, barnerratuta al dago ikerkuntzaren benetako garrantzia?

Pentsatzen dut ezetz. Nagusitzen den ideia da “beste batzuek” finantza dezatela ikerkuntza. Oso garrantzitsua da ikerketa profesionalizatzea eta soldata duinak ordaintzea. Ez da serioa mediku klinikook arratsaldeetan eta borondatez aritzea ikerkuntzan.

Unibertsitateek, industria bioteknologikoek, ikerkuntza institutuek... denek elkarrekin lan egin behar dute ikerkuntzaren alorrean. Izan ere, ikerkuntzan sinisten ez duten eta inbertitzen ez duten gizarteek ez dute etorkizunik.

Gabeziak gabezia, zuk esana da jardun klinikoan eta ikerketan daramatzazun 18 urteetan aldaketa garrantzitsu baten lekuko izan zarela.

Ni nagusiki esklerosi anizkoitza gaixotasunean aritzen naiz lanean eta kasu horretan bai, sekulako aldaketak eman dira eta, denak, onak.

Esklerosi anizkoitza gaixotasun kronikoa da, 20-40 urte bitarteko pertsonen eragiten die, autoimmunea da eta bi bilakaera mota ditu: agerralditan eta progresiboan. Duela 25 urte ez zegoen gaixotasun horren garapena ge-

ratuko zuen farmakorik. 1993. urtean egin genuen lehen entsegu klinikoa Gurutzetako Ospitalean. Helburua gaixotasunaren agerraldiak murriztea edo garapena gertatzea zen. 1995. urtetik gaur arte, esklerosi anizkoitza tratatzeko hamahiru farmako ditugu baimenduta jada, eta, segur aski, datozen bost urteetan botika gehiago izango ditugu eskura. Hori sekulakoa da. Gaixotasun honekin garapen erabatekoa eta izugarri positiboa gertatu da.

Badira neuroendekapenezko beste gaixotasun batzuk, asko ikertuagatik, emaitza onik lortu ez dutenak oraindik; alzheimerra, adibidez. Tamalez, emaitza txarrak eman dituzten farmako asko daude. Baina emaitza txarretatik ere ikasi egiten da, badakigulako beste bide batzuetatik segitu behar dugula. Iktusaren kasuan, aurrerapen garrantzitsuak izan dira eta iktusen garapena aldatzea lortu da, batez ere gertatu eta lehen orduetan. Baina, esan bezala, aurrerapen horiek oso nabarmenak izan dira esklerosi anizkoitzaren kasuan. 2019. urte honetan diagnostikatzen dugun pazientearen garapenak ez du zerikusirik izango duela 25 urte diagnostikatu genuen paziente batenarekin.

Zertan izango da desberdina?

Duela 25 urte esklerosi anizkoitza gorpil aulkiaren sinonimoa zen. Orduan, gaixotasunaren garapen naturala ikusten genuen, ez zegoelako hori geratzeko farmakorik. Gaur, batez ere gaixotasunaren fase goiztiarretan, badaude garapen hori frenatu edo geratu dezaketen botikak, batez ere gaixotasuna agerralditan ematen denean.

Hala ere, oraindik asko dago egiteko, progresiboak diren esklerosi anizkoitzaren forma batzuetan ez dugu emaitza onik lortu. Egia da esklerosi anizkoitzaren forma progresiboetan, oraindik, ez dugula espero genuen emaitzarik lortu, nahiz eta hasi garen zantzu positiboak ikusten.

Zeintzuk dira sintomak?

Esklerosi anizkoitzak pertsona heldu gazteei eragiten die batez ere. Normalean lehen sintomak 20 eta 40 urte bitartean agertzen dira. Sintomak, normalean, agerralditan gertatzen dira; bistako arazo bat gertatu daiteke, 24 orduz baino gehiagoz gaizki ikustea, bikoiztuta ikustea; sentikortasun nahasmendu bat gertatu daiteke, sentikortasuna galtzea gorputzeko atalen batean 24 orduz baino gehiagoz; indarra galdu daiteke... Pertsona gazte bat horietako sintomarekin batekin ikusiz gero, normalean neurologo batek azterketa zorrotz bat egingo dio.

Diagnostikoak gero eta gehiago ari dira aurreratzeko, gero eta goiztiarragoak dira.

Pentsatzekoa da egoera emozionala korapilatsua dela. Nola kudeatzen du hori medikuak?

Pazientearekin konfiantzazko giro bat sortzen saiatzen. Gaixotasun hori mugarri bat da eta gaixoaren bizitza ez da lehengora bueltatzen. Neurologo batentzat bi diagnostiko oso zail daude: esklerosi anizkoitza eta alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA gazteleraz). Erabat desberdinak dira, gaixotasun batek ez dauka bestearekin zerikusirik, baina biak diagnostiko oso konplexuak dira edozein

MAR MENDIBE

IRAKASLEA, IKERTZAILEA ETA MEDIKU KLINIKOA

«Forbes» aldizkariak Estatu espainoleko

ehun mediku onenen zerrendan sartu

berri du. UPV/EHUko irakaslea da eta

ikerkuntzan eta praktika klinikoan aritzen

da Gurutzetako Ospitalean. Esklerosi

anizkoitza gaixotasunean aditua da.

Amagoia Mujika Telleria



Duela 25 urte esklerosi anizkoitza gurpil aulkiaren sinonimo zen. Gaur egun, zorionez, panorama hobea da. GAUR8

profesionalentzat. Horregatik, normalean diagnostiko horiek denboran luzatu egiten dira, pixkanaka ematen dira. Pazientearen zalantza guztiak argitzen saiatzen gara, pasatuko dituen fase desberdin guztiak ulertarazten, une oro informazioa ematen, neurologoarekin harremana errazten... baina inpaktua sekulakoa da. Paziente askok psikologoaren laguntza behar izaten dute.

Profesionalak nola egiten du hori guztia, intuizioz edo formazioz?

Biak erabiltzen ditu. Badaude albiste txarrak emateko teknikak eta horiek gero eta gehiago lantzen dira formakuntzan. Esperientziak, noski, asko laguntzen du. Pazientearen unean uneko egoera oso kontuan hartu behar da; ukazioa dago, beldurra, haserrea... Paziente bakoitzak bere erara bizi ditu fase horiek eta medikuak lagundu egin behar dio une bakoitzean.

Kontsultako atea itxia, karga handia daramazu etxera?

Ez handia. Nire lana, harrigarria badirudi ere, oso atse-

gingarria eta esker onekoa da. Oso makal egon den eta oso gaizki pasatu duen paziente batean gaixotasunaren garapena aldatu dezakezula ikustea, bizitza normal samarra egin dezakeela ikustea, tratamenduari erantzun ona ematen diola ikustea... hori imajinatu dezakezun gauzarik pozgarriena eta asegarriena da. Beti daude egun txarrak eta gogorrak, baina beste horrek guztiak konpentsatzen du.

Paziente gazteak dira, aktiboak, borrokarako sekulako gaitasuna daukate... egunero-



egunero izugarri ikasten dugu haiekin, bizitza lezioak ematen dizkigute etengabe.

Neuroendekapenezko gaixotasunek dagoeneko presentzia nabarmena dute gure jendartean eta pentsatzekoa da etorkizunean ere erronka garrantzitsua izango direla, ezta?

Zalantzarik gabe. Euskal Herrian Europako bizi itxaropen luzeenetakoa daukagu; emakumeak batez beste 83 urte bizi dira, eta, gizonezkoak, pixka bat gutxiago. Ondorioz, biztanleria gero eta zaharragoa izan, alzheimer, parkinson eta iktus kasuak –batez ere hiru horiek– ugaritu egiten dira.

Horri aurre egiteko, alor guztiak prestatu behar dira; osasungintza, arlo soziala, ekonomikoa, elkartegintza... Denok elkarlanean egin behar diogu aurre errealitate horri. Izan ere, zoritxarrez, ez dago errealitate hori ezagutzen ez duen edo ezagutuko ez duen familiarik. Denoi egokituko zaigu inguruan.

Ba al dago prebentzioa egiteko modurik?

Medikuek beti gauza aspergarriak esaten ditugu eta, hitz egiten dugunean, jende guztiak deskonektatu egiten du. Baina modu osasuntsuan jan behar dela, ariketa fisikoa egin behar dela eta ez dela erre behar esaten dugunean, izugarri aspergarriak izan arren, prebentzio neurriez ari gara hizketan.

Erretzeak, gizentasunak, diabetesak, kolesterolak, hipertentsioak... horiek guztiek gaixotasun neurologikoak eragin ditzakete kasu batzuetan, eta, beste batzuetan, okertu. Bizitza osasuntsuaren aldeko konzientzia zabaltzeko behar da.

«Unibertsitateek, industria bioteknologikoek, ikerkuntza institutuek... denek elkarrekin lan egin behar dute ikerkuntzaren alorrean. Izan ere, ikerkuntzan sinisten ez duten eta inbertitzen ez duten gizarteek ez dute etorkizunik»

Prokrastinatu

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Ez dakit gaixotasun gisa diagnos-
tikatzen ote den ezetz esaten ez
jakitea. Baina, horren ondorioz,
egonezin fisikoa sentitzera ino
hel daiteke bat. Kostatzen zaigu edozein
proposamen edo eskaerari ezetz esatea:
gurekin batere zerikusirik ez duen zer-
bait izan behar du, edo inplikatzeari eska-
tzen digun une horretan beste zerbaite-
kin okupatuta egon behar dugu.
Auskalo, parekoak ezezkorik onartuko
ez duela iruditzen zaigulako izango da.
Edo egoera ezerosoak kudeatzeko gogo-
rik eta ausardiarik ez dugulako.

Arazoa da egoerarik ezerosoenak ere
orduan sortzen direla, gauza gehiegiri
ezetz ez esatean. Baietz esandakoak eta
hartutako konpromisoak gehiegi dire-
nean eta pilatzen direnean. Orduan, de-
nera iritsi ezinagatik sortzen da egone-
zina, inpotentzia, eta ingurukoei huts
egiteko beldurra. Edo egoerak gain har-
tzen digu eta modu onean edozer esate-
ra datorrenari ongi erantzuteko pazien-
tzia ere galtzen dugu.
Hori nahikoa ez, eta ia denari baietz
esateko ohiturari lanak geroko uzteko
ohitura gehitzen zaio sarri. Ingelese-
z,

procrastinate aditzak definitzen du joe-
ra hori. “Geroratu” euskal ordainak ez
du hainbeste indar, baina eragiten di-
tuen ondorioak jasanezinak izan daitez-
ke. Egiteko daukaguna, egin ordez, atse-
ginago zaizkigun eta larritasunik
eragiten ez diguten ekintzekin ordezka-
tzen dugu, geure burua engainatuz.
Lana planifikatzea omen da horri au-
rre hartzeko bide eraginkorra. Hasi berri
den 2019rako erronka pertsonal polita
izan daiteke, betiere, bizitza planifika-
tzen pasa eta geroratzeko tentazioan
erori gabe. •


Urtarrila

Joxean Agirre

Nire inguruko batzuk urtarrila
iristean transzendental jar-
tzen dira eta hasten dira adi-
naz eta bizitzaren laburraz go-
goeta egiten. Nik ere aurten, gutxiago
ez izateagatik, Frédéric Beigbederrek
orain hilabete batzuk argitaratu zuen
“La vie sans fin” eleberria irakurri dut.
Beigbederrek, frantziar idazle telebisi-
boenak, bi erabaki garrantzitsu hartu
zituen orain hiru bat urte 50 urteren
mugara iritsi zenean: telebistako pro-
grama eta “Lui” aldizkariako lanak utzi
eta Euskal Herrira etorri zen bizitzera,
Lapurdiko Getariara, gurasoek txalet
bana baitzuten han elkarri begira eta
han ezagutu baitziren, “Un roman
français” (Renaudot saria) eleberrian
kontatu zuenez.
“Une vie sans fin”, beraz, hor idatzia da
eta badira tarteka Euskal Herriari bu-

ruzko aipamen labur batzuk. Kontua da
eleberriko protagonistak 50 urte bete-
tzean, adinarekin obsesionaturik, bizi-
tza luzatzeko munduan barrena egiten
ari diren saiakerak ezagutzeko bidaia
bati ekiten diola klinikaz klinika. Adina-
ren gai hori ez da originala, baina trata-
era zientifikoa bai. Egia esan, eleberri
bat baino gehiago ikerketa klinikoen
kronika da, baina umorearekin egina,
berak ohi duen bezala.
Adinarekiko paranoia honi modu ez-
berdinetan erantzuten dio jendeak. Ni-
re inguruko asko jaki bioekin elikatzen
hasten dira edo glutenik gabe jaten edo
kinao erabiltzen edo beganoak bihur-
tzen dira. Oso gutxi gelditzen gara ar-
doaren eta ogiaren dietarekin jarrai-
tzen dugunak. Egunero izerdi pixka bat
botatzea, hori bai, hori ezinbestekoa de-
la uste dut. Mendian ahal dela. Eguraldi

txarra denean kiroldegira joaten naiz,
baina ez da gomendagarria: aretoak is-
piluz beteak egon ohi dira eta ez dakit
onik egiten duen haietan gihar eroriak
dituen tipo bat pesak egiten ikusteak.
Orain gutxi Jagoba Errekondoren libu-
rua erosi dut eta hor baratza aire libre-
ko gimnasio gisa definitzen du. Aitzu-
rrean egiteak, esate baterako, ez dakit
zenbat gihar sendotzen dituen.
Niretzako metodarik eraginkorrena
neoprenoarena da. Jantzten duzu traje
hori eta kolpetik hamar bat urtez gazte-
tzen zara. Neoprenoak adinak berdin-
tzen ditu. Seguru nago Versaillesko gor-
tean kondesek kortsearen ordez
neoprenoa ezagutu izan balute, ez zute-
la lo egiteko ere kenduko. Neoprenoak
kanpotik gaztetzen du eta taula batekin
uretan zilipurdika ibiltzeak barrutik.
Hori bai, udarako bakarrik balio du. •



 IKUSMIRA

AURRERABIDEA ATE JOKA ETA INDIOAK KEXU

Trena aurrerabidea da. Omen. Indioek baino ez zuten trenaren aurka egin, «mundu berri» hartan. Mundu zahar honetan, berriz, lau baserritarrek. Aurrebidean aurrera egiteko tresna hori ez zelako beren aurrebidea. Gaur egun inork ez du ukatzen trena tramankulu ona dela. Baina aurrebidean aurrera egiteko tresna hori ez da aurrerabidea. Atzo Gasteizko trenbidea lurperatzeko proiektua aurkeztu zuten. Polit askoa. AHTri esker gauzatuko dute halako batean, akaso, proiektu



Endika PORTILLO | FOKU

tu hori, Bilbora eta Donostiara, eta akaso Iruñera, aitaren batean iristeko tren bizkorren proiektuaren baitan, hilean hilean aurrekontua emendatzen duen proiektua. Metropoliko ministroak euskal gizartearen premiekiko konpromisoa agertu zuen; hainbat indio, ordea, oraindik ez dakite zein diren beren premiak. Milioi batzuen banaketaren berri eman zuten agintariek: ehunka batzuk Metropoliairen bizkar, beste batzuk Gasteizko Gobernuaren, Aldundiaren eta Udalaren kontura. Den-dena ordainduko dute eurek. Zeren kexu dira indioak?

Xabier Izaga Gonzalez



Xabier Garate, bere sorkuntza batzuen artean. 1982. urtetik darama erraldoiak, buruhandiak eta bestelako piezak sortzen. Gorka RUBIO | FOKU

infraganti

XABIER GARATE

Buruhandiak, erraldoiak eta eszenarako askotariko sorkuntzak egiten ditu Xabier Garate irundarrak. 1982. urtean hasi zen zaletasunez eta azkar bihurtu zitzaion ofizio. Berak dioenez, elementu bizigabeak egiten ditu, norbait barruan sartzen denean bizia hartzen dutenak. Berak gorputza ematen die; erabiltzen dituenak, arima.

Irungo bere tailerrean, esku artean dituen buruhandiek eta erraldoiek egiten diote harrera bisitariari. Kola usain sarkorra eta begiratu bereziak, haienak. Artean pieza bizigabeak direla dio Xabier Garate egileak, barruan pertsona bat sartzen de-

nean hartzen dutela bizia. Hala izango da, baina begiratuak benetakoak dirudite tarteka.

Xabier Garate irundarrak ibilbide luzea du egina buruhandiak, erraldoiak eta bestelako sorkuntzak egiten. 1982. urtean hasi zen. «Txikitandik izan dut abilitadea eskuekin. Etxean ez neukan arte plasti-

koen inguruko giro berezirik; aita mekanikaria zen eta ama, etxeakoandrea, eta ez zuten ondo ulertzen nire zaletasun hori. Probetxuzko lan batean aritzea nahi zuten eta, noski, eskulanetan aritzea ez zitzairen oso probetxuzkoa iruditzen. Gauza bat eta bestea ikasten aritu nintzen, baina ezerk ez

ninduen harrapatzen. Kalean urte oso mugituak ziren, kaleak berreskuratzeko borroka puri-purian zegoen eta giro hartan nenbilen. Horrela hasi nintzen, kale antzerkirako maskarak-eta egiten, zerotik, intuizioz... -orain lan haiek ikustean txarrak iruditzen zaizkit-. Egin eta egin, enkar guak iristen hasi zitzaizkidan eta une batean pentsatu nuen bizimodua aurrera ateratzeko modu bat izan zitekeela. Zergatik ez?».

Orain oso modu kutunean gogoratzen du bere aita izandako aldaketa. «Nire aita sektore industrialean lan egiten zuen eta nik egiten nuena polita iruditzen zitzaion denbora-pasa modura, baina lanbide bezala ez zitzaion oso serioa iruditzen. Erretiratu zenean, askotan pasatzen zen tailerre- tik lagunen batekin eta oso harro erakusten zuen nire lana.

‘Begira nire semeak zer egiten duen eta honetatik bizi da’, esaten zuen. Errekonozimendu hori oso hunkigarria izan zen niretzat».

Hasiera hartan Oiartzunen zuen tailerra eta hain justu Oiartzungo Udalaren enkar guz egin zituen bere lehen buruhandiak, 1983. urtean. «Ausardia handiarekin eta intuizio hutsez hasi nintzen. Han eta hemen galdetuz, hau eta bestea ikusiz, nire lehen buruhandiak diseinatzeko hasi nintzen. Justu garai hartan lagun bat itsasontzi bat egiten ari zen, poliesterrarekin. Eta material hori probatzea erabaki nuen. Geroxeago antzerki lan baterako maskarak eta pertsonaiak eskatu zizkidaten... eta gaur arte».

Hasieratik poliesterrarekin egiten du lan, kartoia baino gogorragoa eta iraupen luzeagokoa delako. «Oinarrizko lau

ideiarekin hasi eta denborarekin ikasi dut poliesterra maneiatzen. Teknika hobetzen joan naiz eta gero eta sorkuntza arinagoak egiten ditut. Hori garrantzitsua da. Lehenengo buruhandi haiek lau kilo edota lau kilo eta erdi ingurukoak ziren, eta, gaur egungoak, berriz, bi kilo edota bi kilo eta erdikoak asko jota. Buruhandien kasuan, pisua eta ondo ikustea dira ezaugarririk garrantzitsuenak».

Erraldioen kasuan, arintasuna bezain garrantzitsua da pisua orekatua izatea. «Batzuetan erraldoiei pisua kendu nahian desorekatu egiten dira. Garrantzitsua da pisua behean egotea eta orekatua izatea, bestela erraza da oreka galtzea. Erraldoiak dantzatu egin behar dira eta horregatik da garrantzitsua egitura ondo orekatuta egotea».

Erraldioen kasuan ere asko hobetu da teknika eta gero eta erosoagoak dira muntatzeko eta aldean eramateko.

ESZENARAKO MATERIALA

Esan bezala, nagusiki buruhandiak eta erraldoiak egiten ditu. Horrez gain, eszenarako materiala ere sortzen du; dantza talde eta antzerki talde desberdinekin ibilbide luzea du egina. Tarteka, bestelako eskaerak ere izaten ditu, publizitate agentziaren batenak kasu. «Oso lan desberdinak dira horiek. Iragarki baterako osagaien bat egitea adibidez. Horrelako lanak ez zaizkit hainbeste gustatzen, ez dutelako bizirik hartzen. Nik askotan esaten dudanez, nire lanak elementu bizigabeak dira eta kalera ateratzen dituztenean edo eszenara igotzen dituztenean hartzen dute bizia. Hori da benetan gustatzen zaidana. Ez dira altzariak, ez dira estatiko-



Sortzailearen Irungo tailerrean altxor ugari topa daitezke. Txoko guztietan daude bizia hartzeko prest dauden piezak. Gorka RUBIO | FOKU

ak. Nik gorputza ematen diet eta, gero, erabiltzen dituenak arima jartzen die. Hori da benetan gustatzen zaidana».

Adibidez, aurtén 32. edizioa beteko du Irungo Zanpantzar pertsonaiak. «Bertako inauteriak berreskuratzeko lanetan ari zirela-eta, horretarako propio pertsonaia bat sortzeko eskatu zidaten. Horrela sortu genuen Zanpantzar erraldoi hori, kalejira giroan ibiltzeko pertsonaia handia eta zalapartatsua. Pentsa, dagoeneko tradizio bihurtu da. Hitz potoloa da, baina horrela da. Hori niretzat sekulakoa da».

Hasieratik poliesterrarekin egiten du lan, kartoia baino gogorragoa eta iraupen luzeagokoa delako. Teknika hobetzen joan da eta gero eta sorkuntza arinagoak egiten ditu

«Nik askotan esaten dudanez, nire lanak elementu bizigabeak dira eta kalera ateratzen dituztenean edo eszenara igotzen dituztenean hartzen dute bizia. Hori da gustatzen zaidana»

Maskarak ere egiten ditu, dantza talde eta antzerki talde desberdinekin egindako enkar-guei erantzuten. «Maskarekin gauza oso bitxia gertatzen da. Maskarak dantzaria edo aktorea txotxongilo bihurtzen du, panpina. Eta panpinak pertsonak ez dituen lizentziak izaten ditu. Dantzariari edo aktoreari baimentzen ez zaizkion gauzak baimentzen zaizkio panpinari. Badut lagun bentrilokuo bat, nik egindako panpina batekin aritzen dena. Eta hark askotan esaten du panpinak esaten dituen astakeriak berak ezin dituela esan, bestela jendea haserretu egingo litzateke ela berarekin. Aldiz, panpinari onartu egiten dizkiote. Are gehiago, ba omen da panpinarekin eztabaidan hasten denik ere! Oso gauza bitxia eta polita da. Hor, inkontzientean, badugu zerbait kolektiboa, sentsazio bat edo sinismen bat, panpinekin era berezian konektatzen gaituena».

Garatek egiten duen pieza bakoitza pieza bakarra da,

errepikaezina. «Ez dut molderik egiten, ez zaidalako gustatzen. Horregatik, pieza bakoitza bakarra da. Nire buruhandiak eta erraldoiak anai-arrebak izango dira beren artean, nire eskuetatik atera direlako eta teknika berarekin eginak izan direlako. Elkarren antza izango dute, baina sekula ez dira berdinak izango. Eta hori asko gustatzen zait. Pintatu ere beti desberdin egiten ditut».

INGURUARI ARRETAZ BEGIRA

Pieza horietako bakoitzaren atzean mimoz eta talentuz egindako eskulanaz gain, informazio bilketa bat ere bada; kultura, folklorea, mitologia, antropologia, historia... adar asko ukitzen dituen bilketa. «Folklorea, mitologia... izugarri gustukoak ditut eta pertsonaiak sortzeko iturri oparoa dira. Nola inork ez dituen ikusi, horiek oso modu askean interpreta ditzakezu eta horrek liluratu egiten nau. Zer egin eta nola egin. Sorkuntzak bi parteak ditu eta batean zein bestean nire kasa moldatu naiz. Proba-akatsa, proba-akatsa... horrelaxe ikasi dut. Autodidakta naizela esan dezaket, baina ez hainbeste nire kasa ikasi dudalako, inguruko ei oso adi begiratzuz ikasi dudalako baizik. Hemen sekulako maisua izan dugu, Crispin Fernandez de Barrena artista. Bere lana ez da askorik aitortu eta aparteko lanak egin izan ditu; berdin altzari bat berdin tailu bat. Artista hutsa. Nik orduak eta orduak eman ditut harekin hizketan eta asko ikasi dut. Beti nago adi, inguruari arretaz begira, eta horrela ikasi dut nagusiki».

Aitortu duenez, kalean doanean ere aurpegiak zorrotz begiratzen ditu, formak, ertzak,

«Niretzat garrantzitsua da bezeroa tailerrera etortzea, nola lan egiten dudan ikustea, aurpegiz aurpegi detaileei buruz hitz egitea... Zuzeneko harreman hori gustatzen zait»

zimurrak, sudurraren zubia... Gero, bere buruhandi eta erraldoiak kalean jasotakoarekin janzten ditu. Eta aurpegiek, Garateren begietara, pista asko ematen dituzte. «Aurpegiera desberdinak tasan desberdinak iradokitzen dizkigute; inkontzientean barneratuta ditugun kodeak dira. Adibidez, kopeta altuak eta zabalak, pertsona mentalak iradoki ditzake; begitarte denean espazio nagusia, berriz, emozionaltasuna iradokitzen da; eta beheko parte nagusitzen denean, ahoa eta kokotxa, oso pertsona primitiboa marrazten da... Badira pertsonaren zenbait ezaugarri nabarmentzeko teknikak».

Askotariko enkarguak eta eskaerak jasotzen baditu ere, Euskal Herri mailan lan egitea gustatzen zaio bereziki. «Niretzat oso-oso garrantzitsua da bezeroa tailerrera etortzea, nola lan egiten dudan ikustea, aurpegiz aurpegi detaileei buruz hitz egitea... Zuzeneko harreman hori gustatzen zait eta horregatik lan egiten dut bereziki Euskal Herri mailan. Bartzelonara, Galiziara... ere bidali ditut lanak, baina zuzeneko harremana izateko gertuko bezeroak izatea gustatzen zait».

PROZESIOETATIK, FESTARA

Garai batean herri askotako erraldoiek errege-erreginak irudikatzen zituzten. Festak herritartzen hasi zirenean, pertsonaia horiek berritzearen aldeko apustua egin zuten herri askotan eta mitologiari eta tokian tokiko pertsonaiei begiratu zieten kasu askotan. «Festaren demokratizazio bat eman zen neurri batean».

Badirudi erraldoien historia XVI. mende inguruan hasi zela eta normalean prozesio erlijiosoetan parte hartzen zu-

Garateren ustez buruhandi eta erraldoien kalejirak ikuskizun zoragarria dira, «kalean ematen da, dohain eta publiko guztiarentzat. Zaindu beharrekoa da, ezin da galtzen utzi»

Beheko irudian, oraintxe esku artean dituen lanetako batzuk. Garaterentzat, aurpegiaren ezaugarriak bezain garrantzitsua da espresioa, iradokitzen duena.
Gorka RUBIO | FOKU



ten, ez festa giroko kalejiretan. «Badirudi erraldoiek funtzio jakina zutela. Garai hartan jende askok ez zekienez irakurtzen, erraldoiek kontatzen zuten nolabait prozesio horien mezua. Beste interpretazio batzuen arabera, berriz, erraldoiek noblezia irudikatzen zuten, ongiaren eta zuzentasunaren irudi zirelako nobleak. Eta buruhandiak, aldiz, gaiztoak, bihurriak, okerrak... ziren, gizartearen parte hori irudikatzen zuten».

Buruhandiak neska-mutikoen atzetik korrika ibiltzen dira, harrapatzen dutena astinduz –erratzarekin, maskuriarekin...–. Hori da errituala. Garatek, baina, kezkatuta ikusten du akaso hori aldatu egingo dela aurrerantzean. «Niretzat garrantzitsua da buruhandiak arduraz aritzea, haurren atzetik ibiltzea, jolasean eta indarra neurtuz. Beldurra duen haur txikiari, adibidez, beste era batera hurbildu behar zaio. Normalean horrela izaten da. Baina herri batzuetan gertatzen da gaztetxoek hartzea buruhandiak eta harrapatzen duten guztia indarrez astintzea. Gauza horiek zaindu egin behar dira. Izan ere, uneraren batean norbaitek buruhandien jarduna eraso bezala ulertzen badu, jolasaren kontzeptu hori hausten bada, zentzua galtzen du buruhandiak».

Xabier Garateren ustez buruhandi eta erraldoien kalejirak ikuskizun zoragarria dira, «kalean ematen da, dohain eta publiko guztiarentzat. Gainera, espazio zabala betetzen dute beren presentziarekin, jolasekin eta musikarekin. Nire ustez ondo zaindu beharreko ikuskizuna da, ezin dena galtzen utzi». •

Amagoia Mujika Telleria



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Haurren etxeak

Bagoaz pixkanaka-pixkanaka pauso txikiak ematen trauma bat sufritu duten haurren detekzioan, baita traumon prebentzio eta tratamenduan ere. Motibo desberdinek eragin ditzakete traumok, hala nola, ustekabeko heriotza bat, istripu bat, atentatuak edo denboran zehar iraun eta beste egoera zailekin korapilatzen diren trauma konplexuak: abusu sexualak, tratu txar psikologiko zein fisikoak, zabarkeria, *bullying* egoerak, gehiegizko babes edo atxikimendu egoerak...

Askotan hurrekin lanean ari garen profesionalok –dela hezkuntza, pediatria eta psikologia arloetan zein psikiatrian, neurologian eta psikomotrizitatean– denbora gehiago ematen dugu babesgabetasun egoerak jasaten dituzten haurren egoerak detektatzeko eta diagnostikatzen, horiek tratatzen edo bideratzen baino. Askotan errekurtsio faltagatik eta beste askotan ez dugulako nahikoa tresnarik sumatzen dugun arazoa balizkoa den edo ez diagnostikatzeko. Beste batzuetan, hanka sartzeko beldurra dugulako.

Poz handia hartu dut as-teburuan prentsan Azpeitiari buruzko ondorengo albisteak irakurri dudanean: «Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoen kasuak atzemateko programa jarriko dute martxan herriko ikastetxeetan». Hori gauzatzeko detekzioa ahalik eta azkarrena izateko aholkularitza eta formazioa jasoko dute ikastetxeek, traumaren terapian formatzen ari garenok badakigulako zein garrantzitsua den ahalik eta azkarren haurra sufrimendu egoeratik ateratzea, tratu oneko inguru segurua eskaintzeko.

Jendarte mailan ari gara kontzientzia hartzen baina oraindik asko falta da. Islandian, adibidez, “haurren etxeak” jarri dituzte martxan, eta Save The Children erakundeak ere hori gauzatzeko proposatu du Katalunian. Izan ere, Save

The Children gobernuz kanpoko erakundeak etxeon bide-ragarritasuna aztertzen duen txosten bat aurkeztu du.

Sexu-abusua haurtzaroko indarkeria modurik okerre-tako bat da, eta, Katalunian, 2017an, 549 salaketa jarri zituzten haur eta neskei sexu abusuak egiteagatik. Bost lagunetik batek (gizonen %15,5ek eta emakumeen %19ak), sexu-gehiagikeriak jasan ditu haurtzaroan.

Beste indarkeria mota batzuetan baino gehiago, haurrek jasandako sexu-abusu kasuetan arazorik okerrera erasoon inguruko sekretuak eta tabuak dira; horregatik, kasurik gehienetan ezkutuan geratzen dira, eta, ondorioz, hainbat zailtasun eragiten dituzte, eta horrek min eta sufrimendu handiagoa eranstean die hurrei.

Katalunian, behin haurrak bere inguruko norbait azaltzen dioenean sexu-abusuak jasaten ari dela, aurrera begirako bidea konplexua da. Haurrak lau zerbitzu desberdin igaro behar ditu, elkarren artean koordinaturik ez daude-

nak: polizia, ospitaleak, babes-zerbitzuak eta epaitegiak. Errekuperazioa eragozteaz gain, prozesu judizialarentzat ere kaltegarria da egoera hori, haurraren testigantza ez baita zaintzen. Ondorioa, argia: hamar sexu-abusu kasutik zazpi ez dira epaiketara heltzen frogatutakoak.

“Haurren etxeak” proiektuak hori guztia saihestu nahi du. Testigantza bakarra jaso nahi da; traumaren eta haurren psikologian adituak diren profesionalen eskutik inguru goxo eta babestu bat sortu nahi da, haurren testigantzak ahalik eta xamurrenak bihurtu nahi dira, betiere testigantza bakarra izanik.

Eredu horiek gure herri-ekartzea ezinbestekoa da, pausoz pauso egin dezakegulako. Eta horretarako jendarte inplikatu bat behar dugu! •



Funtsezkoa da haurren babesgabetasun egoerak azkar detektatzea. GAUR8

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



ZINKUNEGI SENDIA FUNTSA

IKURRINA BAT ZERUA ZEHARKATZEN AGINTARI FRANKISTEN AURREAN

1967ko urtarrilaren 19an, aspaldi “18 de Julio” eta gaur egun “Konstituzio plaza” izena duen horretan, San Sebastian eguneko bandera igotzea baino ordu batzuk lehenago, gazte batzuek, tartean Juantxo Amilibia, Iñaki Mujika Arregi, Antxon Elias eta Jose Cruz Orkolaga, plaza alderik alde zeharkatzen zuen kable bat jarri zuten kontu handiz. Gaueko hamabietan, “San Sebastian martxa” ezagunaren doinuan danborrak jotzen hasi zirenean, ikurrina bat plazan barrena txirrika batzuen bitartez irristatzen hasi zen, milaka lagun baten aurrean. Plazako balkoietan, ekitaldiaren buruan, agintari frankistak zeuden: Manuel Valencia Remon gobernadore zibila, Joaquin Bosch de la Barrera gobernadore militarra, Luis Martin Pinillos Itsas Armadako komandantea, Jose Manuel Elosegui Donostiako alkatea eta Antonio Epelde Gipuzkoako Aldundiko presidentea. Urtebete geroago, 1968an, Xotero eta Mikel Irazusta anaiek, beste zenbait lagunekin batera, urtarrilaren 19an plaza erdian ikurrina bat jaurtitzeko tramankulu bat jartzen saiatu ziren. Tramankulua jartzen ahalegintzen ari zirela harrapatu eta Amarako Gobernu Zibilera eraman zituzten. Han hiru egunez torturatu eta handik Martuteneko kartzelara eraman zituzten. Artikulua ilustratzen duen irudia 1967ko urtarrilean egina da. Mukuru betetako plazaren gainetik igarotzen da ikurrina, Gaztelubideko danborradak “San Sebastian martxa” jotzen duen bitartean, agintari frankisten begi harrituen aurrean, uste izatekoa denez. Argazkiaren kalitatea ez da ona, baina gure historiaren dokumentu grafiko eztabaiaezina da. Argazkiaren egilea nor izan zen ez da ezagutzen.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*